

Año LVI. urtea

138 - 2024

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Hiru euskal testu argitara:
Getariako eskutitzak
(1796-1797)

Olatz Leturiaga Angoitia

Sumario / Aurkibidea

Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVI. urtea - N.º 138. zk. - 2024

Uztaila-abendua / Julio-diciembre

ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

(Euskal) ipuingintzaren gakoak: Iban Zalduaren «Ipuina adulterioa da» Mikel Ayerbe Sudupe	325
Sluicing in Basque: a move-and-delete analysis Irene Macazaga Núñez	341
Hiru euskal testu argitara: Getariako eskutitzak (1796-1797) Olatz Leturiaga Angoitia	375
Uxue Apaolazaren «Manoletinak» (<i>Bihurguneko nasa</i>) ipuineko ekfrasiez: irakurketa proposamen bat Leire Iruretagoiena Goikoetxea	421
Aspectos de la formación del <i>Vocabulario Pomier</i> y su relación con el <i>Diccionario Trilingüe</i> : hápax, supuestas voces septentrionales y segundas documentaciones Joseba A. Lakarra	443
Hautzaroa eta nerabezaroa babesteko Gipuzkoako egoitza-harrerak: euskara, tutelatu ohien bizipenak eta hizkuntza-eskubideak Joana Miguelena Torrado, Odei Guirado Irasuegi, Maria Dosil Santamaria	563
Komunikazio-antsietatea, hezkuntza formala eta euskarazko hizkera informalaren ikas-irakaskuntza Odei Guirado, Alaitz Santos	587
1958ko teatro-testu itzulien lehiaketa Pariseko Eskual Etxean Miren Ibarluzea Santisteban	617
Kontzientzia metalinguistikoa eta eleaniztasuna: berrikusketa bibliografiko bat Artzai Gaspar	649
Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales / Rules for the submission of originals	677

Hiru euskal testu argitara: Getariako eskutitzak (1796-1797)

Salen a la luz tres textos vascos: cartas de Getaria (1796-1797)

Three Basque texts brought to light: letters from Getaria (1796-1797)

Olatz Leturiaga Angoitia
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
olatz.leturiaga@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-7930-6576>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv138.3>

Lan honek Eusko Jaurlaritzaren Doktoretza Aurreko Programako laguntza (2021-2022) jaso du, eta «Monumenta Linguae Vasconum 6: Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca (PID2020-118445GB-I00)» ikerketa-proiektuaren barnean egin da. Saio honen lehen zertzeladak *Euskal Ikasketetako doktoregaien IKER-UPV/EHU jardunaldian* (2024) aurkeztu nituen, Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programaren barruan; eskerrak eman nahi dizkiet hitzaldiaren ostean oharrak eta iruzkinak egin zituztenei, baliagarriak izan baitzaizkit lana fintzeko. Eskerrak, halaber, modu batera edo bestera, lehen idatzaldia osatzen eta hobetzen lagundu didatenei: Iñaki Caminori, Eneko Zuloagari, Gidor Bilbaori, Xabier Lamikizi eta ebaluatzaile anonimoei.

Jasotze data: 2024/06/03. Behin-behineko onartze data: 2024/09/16. Behin betiko onartze data: 2024/11/26.

LABURPENA

Orain arte ezagutzen ez genituen hiru euskal testu dakartzat: Jose Segurari idatzitako Getariako (Gipuzkoa) eskutitzak, 1796.-1797. urte bitartekoak. Hiru gutunek egitura bera dute; lehendabizi, Maria Francisca Mendizabal emazteak idazten dio gaztelan, eta ondoren, Maria Curuza Mendizabal koinatak euskaraz. Igorle-hartzaileen eta ageri diren beste izenen jatorria argitu ostean, gutunen edizioa dakart, eta jarraian, euskarazko testu zatien hizkuntza-azterketa. Laburrak izanagatik, euskarazko lekukotasun zaharrik ezagutzen ez genuen eremu bateko (Getariako) testuak ditugu orain, XVIII. mendearen amaieran idatzitako gutun pribatuak, hots, ahozko jardunetik hurbil egoteko aukera duten testu-genero batekoak.

Gako hitzak: dialektologia historikoa; XVIII. mendea; testu zaharrak; eskutitz pribatuak; Getaria.

RESUMEN

En este artículo presento tres textos vascos desconocidos hasta ahora: cartas de Getaria (Gipuzkoa) escritas a José Segura entre los años 1796-1797. Son tres cartas que muestran la misma estructura; primeramente, escribe la esposa María Francisca Mendizabal en castellano, y después su cuñada María Curuza Mendizabal en vasco. Una vez aclarado el origen de los remitentes-destinatarios y otros nombres que aparecen en la correspondencia, presento la edición de las cartas y el análisis lingüístico de los fragmentos escritos en vasco. Ahora tenemos algunos testimonios vascos de Getaria, y además, de un género de texto (cartas privadas) que tiende a reflejar el habla oral de aquella época.

Palabras clave: dialectología histórica; siglo XVIII; textos antiguos; cartas privadas; Getaria.

ABSTRACT

This paper presents three previously unknown Basque texts: letters from Getaria (Gipuzkoa) addressed to Jose Segura and dated 1796-1797. All three letters follow the same format: first, Maria Francisca Mendizabal, Segura's wife, writes in Spanish, and then, Maria Curuza Mendizabal, his sister-in-law, writes in Basque. After establishing the origins of the senders and other referenced individuals, I provide an edition of the letters, accompanied by a linguistic analysis of the Basque fragments. This discovery contributes new Basque written evidence from late 18th century Getaria in the form of private letters, offering valuable insights into the spoken language of the time.

Keywords: historical dialectology; 18th century; old texts; private letters; Getaria.

1. SARRERA. 2. ESKUTITZEN AURKEZPENA. 2.1. Hurbilpena. 2.2. Segura-Mendizabal eta Aristondo-Mendizabal familiak. 2.3. Eskutitzetako eskuak. 2.4. Erabilitako grafia. 3. ESKUTITZEN EDIZIOA. 3.1. Irizpideak. 3.2. Testuak. 4. HIZKUNTZA-AZTERKETA. 4.1. Fonologia. 4.2. Izen-morfologia. 4.3. Aditz-morfologia. 4.4. Sintaxia. 4.5. Lexikoa. 5. AZKEN HITZA. 6. ERREFERENTZIAK. 7. ERANSKINAK. 7.1. Eskutitzetako laburdurak. 7.2. Eskuizkribuaren irudiak.

1. SARRERA¹

Saio honetan, orain arte ezagutzen ez genituen euskal testu batzuk aurkeztuko ditut: 1796.-1797. urteen artean idatzitako Gipuzkoako Getariako eskutitzak. Londresko *The National Archives*en daude gutunok (signatura: HCA 49/8-1)². Izatez, ez nituen nik aurkitu, Xabier Lamikiz historialariak eman zidan haien berri. Ozeano Atlantikoko XVIII. mendeko merkataritza-harremanez diharduen *Trade and trust in the eighteenth-century Atlantic world: Spanish merchants and their overseas networks* (Lamikiz, 2010) liburuan lanean ziharduela aurkitu zituen, jada argitaratuta dauden *Le Dauphin* itsasontziko eskutitzekin batera (Padilla-Moyano & Videgain, 2015). Getariako eskutitz hauez ezer gutxi genekien orain arte, *Le Dauphin*en testuinguru historikoaz diharduen bere artikulu batean aipatutakoa baizik ez (Lamikiz, 2015, 41. or.):

1 Laburdura hauek erabili ditut: *d.e.*: data ezezaguna; *eus.*: euskaraz; *gast.*: gaztelaniaz; *gut.*: gutuna; *ler.*: lerroa; *berts.*: bertsoa. Beste hauek dira, berriz, artikuluan aipatutako testu zaharren laburdurak eta erabilitako edizioak: *Amilleta*: Antzuolako Amilletaren 1678ko dotrina (Arejita & Alberdi, 1985); *AntzDot*: Antzuolako 1825eko dotrina (Uribe-Etxebarria, 2008); *AzpGut*: Azpeitiko altzagatarren 1738ko gutunak (Madariaga et al., 2009); *Berg-Antz*: Bergara-Antzuola aldeko 1708ko sermoia (Etxebarria, 2007); *DonGut*: Donostiako maitaleen 1761eko gutunak (Satrustegi, 1983a); *EldBerts*: Elduaingo 1619ko bertso iraingarriak (Bilbao & Lakarra, 2014); *Errezil-Gut*: Errezilgo abadesaren 1622ko gutunak (Sarasola, 1983); *GoiPlat*: Goierriko XVIII. mendeko platika (Murgarri, 1984); *GTour*: Azkoitiko 1772ko *Grand Tour* antzerkia (Ugarte & Aldekoa, 2007); *HondPlat*: Hondarribiko 1778ko platika (Satrustegi, 1979); *Irazusta*: Alkizako Juan Irazustaren 1739ko dotrina (Leturiaga, 2022); *IrunUdal*: Irungo 1721eko udal-agiriak (Altuna & Miranda, 1995); *LasBerts*: Lasarteko 1716ko bertso-sorta (Satrustegi, 1983b); *OArim*: Ordiziako Jose Otxoa Arinen 1713ko dotrina (Julio Urkixo funtseko ale mikrofilmatua); *SumBrev*: Azkoitiko 1614ko *Sumario Brevea* (Urkizu, 2009); *Txakartegi*: Mutrikuko Maria Angela Txakartegiren 1775eko gutuna (Santazilia, 2017); *ZegDot*: Zegamako 1741eko dotrina (Ondarra, 1984). Osorik idatzi ditut, laburdurarik gabe, zerrenda honetan sartu ez ditudan eta artikuluan aipatu ditudan gainerako testuak.

2 Online katalogoan HCA 49/8-2 signatura ageri bada ere. <https://discovery.nationalarchives.gov.uk/details/t/C3301221> [2024-07-30].

Hego Euskal Herriko euskararen idatzitako bi eskutitz bakarrik aurkitu ditut HCAko iturrietan, biak oso antzekoak eta pertsona berari bidaliak, Gipuzkoako Getariako José de Segura kapitainari. Bi eskutitzak larruzko zorro txiki batean zeramatzan Segurak bere ontzia Buenos Airesetik zetorrela britainiarrek harrapatu zutenean. Batak 1796ko abuztuko data du, besteak 1797ko urrikoa.

1797ko urrian idatzitako euskarazko eskutitzaren testua dakar jarraian. Hori da Getariako eskutitz hauen erreferentzia bakarra, eta ez osoa. Horregatik, ezer baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiot Lamikizi berari, eskuzabaltasun osoz, zeukana emateagatik eta laguntzeko prest egoteagatik. Getariako euskarazko bi gutunen transkripzioak eta horietako baten argazkiak bidali zizkidan, gutun beretan dauden gaztelaniazko testu-zatiekin batera. Geroago izan nuen hirugarren eskutitz baten berri, Londresen bizi den Aitor Irastorza lagun zaldibiarrari esker. Mila esker zuri ere, Aitor.

Aurrera joan baino lehen, ordea, gutun hauek Londresen agertu izanaren arrazoia argitu nahi nuke. Xabier Lamikizek azaldu didanez, Aro Berrian hainbat gerra izan zituzten britainiarrek frantsesen eta espainiarren aurka, eta etsaien milaka itsasontzi harrapatu zituzten. Espainiaren eta Amerikaren arteko komunikazioa blokeatuta izan zuten Britainia Handiko ontziek 1797tik 1802ra artean. 1798an, Frantziako Iraultzaren testuinguruan, atxikitu zuten hain zuzen hizketagai ditugun gutunak zeuden ontzia. Itsasontzi horretako eta beste hainbatetako paperak –eskutitzak barne– Londresko *The National Archiveseko High Court of Admiralty* deritzon atalean daude gordeta³.

Hala, Getariako hiru eskutitzen edizioa eta hizkuntza-azterketa dakartzat artikuluhonetan. Euskaraz idatzitako zatietan jarri dut arreta batik bat, nahiz eta testuingurua hobeto ulertzeko, gaztelaniaz idatzitako zatiak ere aurkeztu ditudan. Halaber, gutunetan aipatzen diren pertsonen jatorria argitzen saiatu naiz; izan ere, Getarian idatzi zirela esaten da testuan, baina horrek ez du ziurtatzen Getariako orduko hizkera izateaz: gutun horiek idatzi zituenen nor zen eta nongoa zen jakin behar da. Honenbestez, § 2n eskutitzetan aipatzen diren pertsonen buruz jardun dut, getariarrak ote ziren eta, beraz, Getariako hizkera isla dezaketen ala ez argitzeko. § 3n eskutitzen edizioa dakart, eta § 4n, berriz, hizkuntza-ohar batzuk egin ditut euskarazko zatietan ageri diren arkaismoez eta berrikuntzez.

2. ESKUTITZEN AURKEZPENEA

2.1. Hurbilpena

Guztira hiru eskutitz dira, barku bateko kapitain Jose Segurari idatziak. Ontziari eta itsasbideari buruzko zenbait datu jakin ahal izan ditut Xabier Lamikizi esker.

³ Katalogatuak eta digitalizatuak izaten ari dira *High Court of Admiralty* atalean dauden milaka agiri, tartean 160.000 eskutitz. *The Prize Papers* deritzon proiektu bat da, hogeitazko iraupena izango duena (2017-2037). Jada eskuragarri daude zenbait agiri euren webgunean: <https://www.prizepapers.de/>

Nuestra Señora de los Remedios izena zuen ontziak, *San Miguel* ezizena. Buenos Aires edo inguru hartan eraikia zen; hangoa zen Francisco Antonio de Belaustegi jabe euskalduna. Esan bezala, barku horretako kapitaina zen Jose Segura. Buenos Aires / Montevideo-Cádiz bidea egiten zebiltzan britainiarrek atxiki zituzten unean, eta ontzian agertu ziren hizketagai ditugun gutunak.

Bildutako euskarazko hiru eskutitzek egitura bera dute: lehendabizi, Maria Francisca Mendizabal emazteak idazten dio, gaztelaniaz, eta jarraian, Maria Curuza Mendizabal koinatak, euskaraz. Gutun horietako banaren sinaduretan, Nicolas Segura semea eta Francisco Aristondo delako bat ere aipatzen dira. Honenbestez, honako datu hauek nituen gehiago sakontzen hasi aurretik (jatorrizko testuko grafian idatzi ditut izenak; eskuizkribuen irudiak § 7.2n):


1. taula. Eskutitzen igorleak, hartzailea eta data

	1. gutuna	2. gutuna	3. gutuna
Nork	• Gazt.: Francisca de Mendizabalek eta Nicolas de Segurak • Eus.: Curusa de Mendizabalek	• Gazt.: Francisca de Mendizabalek • Eus.: Maria Curuza de Mendizabalek	• Gazt.: Maria Francisca de Mendizabalek • Eus.: Curuzak eta Francisco de Aristondok
Nori	Jose de Segurari	Jossef de Segurari	Josseph de Segurari
Non/noiz	Getarian, 1796ko abuztuaren 8an	Getarian, 1796ko abuztuaren 21ean	Getarian, 1797ko urriaren 12an

2.2. Segura-Mendizabal eta Aristondo-Mendizabal familiak

§ 2.1eko izenak Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoak duen *online* katalo-goan bilatu, eta horiekin bat datozen bataio- eta ezkontza-agiriak topatu ditut. Izen gehiago ere ageri dira eskutitzetan: *Francisca arreba* (1. gut. eus.); *Mari Angela arreba* (2. gut. eus.); *Migel* (2. gut. eus.); *Franciscu* (2. gut. eus.); eta *Nicolas*, *Miguelcho* eta *Xabiera* seme-alabak (3. gut. gazt.), besteak beste. Datuok baliagarri izan zaizkit gutu-nen igorleez eta hartzaileez gehiago jakiteko. Hari horiei tiraka, Segura-Mendizabal familiaren genealogia osatu dut⁴ (1. irudia).


4 Maria Francisca Manuela Mendizabal Larrañagaren (gaztelaniazko zatien igorlea) bataio-agirian adierazten da Maria Francisca Larrañaga Ortolaza zuela ama (bere bataio- eta ezkontza-agirian *Ostolaza*) eta Antonio Mendizabal Aizpuru aita (beren ezkontza-agirian *Aispurua*). Aitzitik, Maria Francisca Manuelaren neba izan daitekeen Juan Agustin Luis Mendizabal Larrañagaren bataio-agirian jartzen du aita Antonio Mendiza-val Ariztondo zuela (ama Maria Francisca Larrañaga Ostolaza). Beraz, neba-arreben aitaren bigarren deitura ez dator bat. Baliteke agerietako hutsegite bat izatea, izena eta lehen deitura berberak baitira; hori horrela balitz, pertsona bera litzateke. Gurasoen ezkontza-agirian ere baieztatzen da *Aispurua* dela hizketagai dugun Antonio Mendizabalen bigarren deitura. Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoaren webgunean kont-sulta daiteke informazioa: <https://artxiboa.mendezmende.org/eu/busque-partidas-sacramentales.html>



1. irudia. Segura-Mendizabal familiaren zuhaitz genealogikoa.

Besteak beste, *Jose / Jossef de Segura* (eskutitzen hartzailea), honen emazte *Maria Francisca de Mendizabal* (gaztelaniazko zatien igorlea) eta *Maria Curuza / Curusa* koinata (euskarazko zatien igorlea) aipatzen dira eskutitzetan. Senar-emazteen bataio- eta ezkontza-agiriak erraz aurkitu ditut: Jose Thomas Francisco Segura Eznal (Getaria, 1761-03-06) eta Maria Francisca Manuela Mendizabal Larrañaga (Getaria, 1753-12-24), zeinak 1786ko urtarrilaren 22an ezkondu ziren, Getarian. Bost seme-alaba izan zituztela dirudi; hain zuzen ere, horietako baten sinadura ageri da lehenengo eskutitzaren gaztelaniazko zatian (*Nicolas*). Bestalde, *Maria Curuza/Curusa* koinatari dagokionez, zenbait proba egin behar izan ditut, eta, azkenean, Maria Cruz Mendizabal Larrañaga delako bat topatu dut: *Curuza* < *Cruz*. Ez dut bere bataio-agiririk aurkitu, baina, izen-abizenari erreparatuta eta Jose Seguraren koinata gisa aurkezten dela aintzat hartuta, Maria Francisca Manuela Mendizabal Larrañagaren ahizpa dirudi.

Bestalde, ezkontza-agirietan ikusi dut Maria Cruz Mendizabal Larrañaga (d.e.) hori Esteban Aristondo Yturceta (Getaria, 1750-12-27) delako batekin ezkondu zela Getarian, 1781eko maiatzaren 14an (2. irudia). Bi seme-alaba izan zituztela dirudi: Francisco Gregorio eta Maria Josefa Dominica; hirugarren eskutitzeko euskarazko zatian ageri da, hain zuzen, *Francisco de Aristondo* izena, Curuzaren seme gisa aurkeztuta.



2. irudia. Aristondo-Mendizabal familiaren zuhaitz genealogikoa.

Esandakoa aintzat hartuta, hona hemen eskutitzetan ageri diren izen batzuk eta euren artean izan dezaketen erlazioa⁵:

- *Jose / Josseph de Segura* → Jose Thomas Francisco Segura Eznal (Getaria, 1761-03-06): eskutitzen hartzailea.
- *Maria Francisca de Mendizabal* → Maria Francisca Manuela Mendizabal Larrañaga (Getaria, 1753-12-24): gaztelaniazko zatien igorlea, Jose Thomas Francisco Segura Ezنالen emaztea.
- *Maria Curusa/Curuza de Mendizabal* → Maria Cruz Mendizabal Larrañaga (d.e.): euskarazko zatien igorlea, Maria Francisca Manuela Mendizabal Larrañagaren ahizpa eta Jose Thomas Francisco Segura Ezنالen koinata.
- *Mari Angela arreba* [2. gut. eus.] edo *cuñada Maria Angela* [1. gut. gatz.] → Maria Angela Joachina Segura Eznal (Getaria, 1764-01-14): Jose Thomas Francisco Segura Ezنالen arreba eta Maria Francisca Manuela Mendizabal Larrañagaren koinata.
- *Arreba Francisca* [1. gut. eus.] edo *ermana Francisca* [1. gut. gatz.] → Maria Francisca Segura Eznal (Getaria, 1772-12-17): Jose Thomas Francisco Segura Ezنالen arreba.


⁵ Izen-abizenak ez daude agiri guztietan berdin idatzita: adibidez, *Mendizabal* & *Mendizaval*, *Aristondo* & *Ariztondo*; *Yturceta* & *Yturzaeta*, etab. Bataio-agirietan ageri diren moduan adierazi ditut.

- *Francisco de Aristondo* [3. gut. eus.] edo *Franciscu* [2. gut. eus.] → Francisco Gregorio Aristondo Yturcaeta (Getaria, 1782-05-09): Maria Cruz Mendizabal Larrañagaren semea.
- *Nicolas de Segura* [1. gut. gazt.] edo *seme Nicolas* [1. gut. eus.] → Nicolas Antonio Segura Mendizaval (Getaria, 1786-12-13): Jose Thomas Francisco Segura Eznaletan eta Maria Francisca Manuela Mendizabal Larrañagaren semea.
- *Nicolas, Miguelcho* eta *Xabiera* [3. gut. gazt.] → Nicolas Antonio Segura Mendizaval (Getaria, 1786-12-13), Maria Xaviera Juana Segura Mendizaval (Getaria, 1791-08-22) eta Jose Miguel Segura Mendizaval (Getaria, 1792-11-09): Jose Thomas Francisco Segura Eznaletan eta Maria Francisca Manuela Mendizabal Larrañagaren seme-alabak.


Beraz, badirudi Getariako familiarteko batzuek idatzitako eskutitzak direla hizketagai ditugunak.

2.3. Eskutitzetako eskuak

Orain arte eskutitzetan esplizituki adierazita dagoen informazioaren berri eman dut, eta aipatu dut bi igorle nagusi bereiz daitezkeela sinadurretan: gaztelaniazko zatiena (emaztea) eta euskarazko zatiena (koinata). Haatik, zenbait zehaztapen egin behar dira; izan ere, izen berak sinatuak egonagatik, gaztelaniazko zati guztien idazkera ez da bera. Honenbestez, badirudi *igorlea* –gutuna igortzen duena– eta *idazlaria* –gutuna idazten duena– bereizi behar direla, halako dokumentuetan egin ohi den bezala (cf. *Le Dauphine*ko gutunak; Padilla-Moyano & Videgain, 2015):




3. irudia. Lehenengo gutuneko gaztelaniazko zatiaren hasiera.



Getaria y Agordo Mar. 1796.

Esposo y querido mio Recibir la estimada carta
ayer el dia 20 de este, y de que gozas con salud
yo allo buena en compania de mi familia adiorg.

4. irudia. Bigarren gutuneko gaztelaniazko zatiaren hasiera.



Getaria y Octub.^e de 1797.

Querido Esposo: me halezare que al Recibo de esta te ha-
ves ~~que~~ con salud yo estoy buena con toda nuestra fami-
lia a un estoy siempre anelada por saber tus noti-
cias, pues de este que sali de Cadix asta ahora no he
recibido otra Carta sino una sola llegada de Monte-
video, pues considerados bien como puedo estar pu-
do de Cadix se caia en

5. irudia. Hirugarren gutuneko gaztelaniazko zatiaren hasiera.

Azkenak letra landuagoa du beste biek in alderatuta. Hala, lehen eta bigarren esku-
titzetako gaztelaniazko zatiek esku berak idatziak dirudite (3.-4. irudiak), eta hiruga-
rrenkoa beste batek (5. irudia). Gogora dezagun, emaztearekin batera, Nicolas Segura
semeak ere sinatzen duela lehenengo eskutitza. Hori dela eta, semeak idatz zitzakeen
agian lehen biak; alabaina, bigarrenean ez da bere sinadura ageri. Baliteke idazlariren
bat eduki izana, emazteak idazten ez zekielako.

Bestalde, euskarazko zatietan ere aldea ikusten da eskutitz batetik bestera; kasu
honetan ere, lehen biek idazkera bera dute (6.-7. irudiak), eta hirugarrenak beste bat
(8. irudia):

Nece conado maitea asco alegria
conais carrau resubisean osasuna ne
cin egotea guc osasuna dega gus
tioc sin reserbise co desentua gau
resue cuxte co gungoio ac exebere

6. irudia. Lehenengo gutuneko euskarazko zatiaren hasiera.

Nece conado maitea asco alegria
tu conais carrau resubisean osam
tu na ne cin egotea guc osasuna ne cin gao
desu reserbise co obligas de an bese

7. irudia. Bigarren gutuneko euskarazko zatiaren hasiera.

D. D.
Nece Conado Maitea: emen bisi guera familia bioc
alcaizen Companean alcaizi guere aleguinean lagun
duaz. Inue notisien esperazen Corneoa para ta coreo
anzen beguina. Indioac Mesiazen etorizaten becelaz,

8. irudia. Hirugarren gutuneko euskarazko zatiaren hasiera.

Eta gutun bereko gaztelaniazko eta euskarazko zatiak esku berak idatziak ote? Konpara ditzagun, esate baterako, lehenengoaren bi zatiak (ikus 3. eta 6. irudiak): itxuraz, ez dirudi idazkera bera dutenik; euskarazkoak letra zabalagoa du, eta hitzak ez dira gaztelaniazkoan bezain argi bereizten. Bigarren eskutitzaren kasuan ere ondorio bera atera liteke (ikus 4. eta 7. irudiak). Aitzitik, hirugarrenaren bi zatiek idazkera bera dute (ikus 5. eta 8. irudiak). Aipatu dut azken eskutitzeko euskarazko zatian Francisco Aristondo (semea)k sinatzen duela koinatarekin batera; baliteke berak idatzi izana, edo, lehenago proposatu bezala, idazlari batek. Nolanahi ere den, hiru esku bereiz litezke: A eskua (1. gut. gazt. eta 2. gut. gazt.), B eskua (1. gut. eus. eta 2. gut. eus.) eta C eskua (3. gut. eus. eta 3. gut. gazt.).

2.4. Erabilitako grafia

Idazkeraren aldetik ez ezik, ortografiari erreparatuta ere aldeak daude eskutitz bate-tik bestera eta eskutitz bereko zati batetik bestera. Esku batek baino gehiagok idatzi izanaren froga izan liteke hau ere. Gaztelaniazko zatiei dagokienez, honako grafema hauek erabili dira eskutitz bakoitzean (eskuizkribuaren irudiak § 7.2n):

1. GUTUNA (A ESKUA)

- /b/ : *abisame, biene, nobedad, primabera*, etab. Gutxi batzuetan <v>-z: *Navio, sirve*
- /g/ <gu> (/e): *Guetaria*
- /k/ <qu> (/i, e): *aquel, porque, querido, quieren*, etab. Horiez gain, *quando* ‘cuando’, *quanto* ‘cuanto’
- [x] <j> eta <g> (/e): *hijo(s)* eta *diligencia(s)*
- [ɲ] <ñ>: *cuñada, enpeño, mañana*
- /r/ <rr>: *corresponden*
- /tʃ/ <ch>: *China, echa, Echaberri* (eta *Galdoch*, agian *Galdo*[f] dena)
- Seseoaren erakusgarri den /ʃ/ <c> (/i, e) eta <s> (/i): *acer, dicen, diligencia(s), oficio* eta *asiendo, desirle*, etab⁶.
- <h> grafikoa: *hijo(s)*. Baina <h>-rik gabeko *acer, aga, an, echa...* ere bai.

6 Kontu grafiko hutsetik haragokoak dira bikoiztasun hauek eta fonetikaz ere erakusten dute; hain zuzen, seseoaren erakusgarri dirudite <s>-dunek, hortzarteko <z> gaztelaniazkoa nahiko modernoa baita. Getariako hiru eskutitzetan ageri dira halakoak, gaztelaniazko zatietan. Hego Euskal Herriko seseoaz, ikus Zuloaga (2019, § 4.7.3.3.2).

2. GUTUNA (A ESKUA)

- /b/ : *abisale, ber, fabor, llebado*, etab. Eta batzuetan <v>-z: *recivi, viaje* (& *biaje*), *havia* (& *abia*)
- /g/ <gu> (/l_e): *Guetaria*
- /k/ <qu> (/l_i, e): *chiquillo, esquina, quien, riquezas*, etab. Horiez gain, *quando* ‘cuando’
- [x] <j>: *hijos, semejante, biaje & viajes*
- [ɲ] <ñ>: *compañia & compañía*
- /tʃ/ <ch>: *echo, chiquillo, ocho*
- Seseoaren erakusgarri den /ʃ/ <c> (/l_i, e) eta <s> (/l_i): *acer, entonces, obligaciones, recivi* eta *asiendo, precensia*, etab.
- <h> grafikoa: *haras, havia, hijos*. Baina <h>-rik gabeko *abia(n), acer, e, ermana, ermosos...* ere bai.

3. GUTUNA (C ESKUA)

- /b/ : *berte, embies, motibo, probecho*, etab. Gutxi batzuetan <v>-z: *advierto, prevenir*
- /g/ <gu> (/l_e): *guerra* (& *gerras*), *Guetaria, Miguelcho*
- /k/ <qu> (/l_i, e): *porque, querido, quien, quita*, etab. Horiez gain, *quanto* ‘cuanto’
- [x] <j>: *yjos & yja*
- [ɲ] <ñ>: *años, sueño*
- /r/ <rr>: *correo, gerras & guerra* (baina *core*)
- /tʃ/ <ch>: *Miguelcho, muchos, probecho*
- Seseoaren erakusgarri den /ʃ/ <c> (/l_i) eta <s> (/l_i, e): *manuatencion, recibido, recibo* eta *nesesidad, notisias, parese, presisas*, etab. (1. eta 2. gut. gazt.-etan baino gehiagotan ageri da <s>)
- <h> grafikoa: *halegrare, halles, hasta, he*. Baina <h>-rik gabeko *aora, ubieras, yjos, yja...* ere bai.

Behean zerrendatutakoak dira, bestalde, euskarazko zatietan ageri diren grafe-
mak; ikus daitekeenez, ez dira gaztelaniazko zatietan dauden berak:

1. GUTUNA (B ESKUA)

- /b/ soilik: *eresibituco* & *resibisean*, *serbiseco* (vs 1. gut. gazt. <v>-z ere bai)
- /k/ <c> (/i): *onecin*, *osasurecin* (vs 1. gut. gazt. <qu>)
- [x] <g>: *gaingoicoac* ‘jaungoikoak’ (vs 1. gut. gazt. <j> ere bai)
- [ɲ] <n>: *conado* (vs 1. gut. gazt. <ñ>)
- /r/ <r>: *areba*, *eresibituco*, *etorico* (vs 1. gut. gazt. <rr>)
- Frikari hortzobikariak <s>: *asco*, *ecusteco*, *estu*, *seme* eta *desu*, *lastan*, *nais*, *partes*, *sure*, etab.
- Afrikatu hortzobikariak <s>: *biosean*, *biralseco*, *eherasea* ‘etxeratzea’, etab.
- /tʃ/ <h>: *ehera*, *eherasea* (vs 1. gut. gazt. <ch>)

2. GUTUNA (B ESKUA)

- /b/ : *beage* ‘gazt. viaje’, *serbiseco*. Eta <v>-z ere bai: *resivisean*
- /g/ <g> (/i, e): *geiigo*, *gisona*, *irurogei*, *sestuginsan*, etab. (vs 2. gut. gazt. <gu>)
- /k/ <c> (/i, e): *escero*, *osasurecin* (vs 2. gut. gazt. <qu>)
- [x] <g>: *gaingoicoac* ‘jaungoikoak’, *beage* ‘gazt. viaje’ (vs 2. gut. gazt. <j>)
- [ɲ] <n>: *conado*, *enpenoetan* (vs 2. gut. gazt. <ñ>)
- /r/ <r>: *arebac*
- Frikari hortzobikariak <s>: *asco*, *esan*, *laster*, *icasten* eta *besela*, *gisona*, *nais*, *seu*, etab.
- Afrikatu hortzobikariak <s>: *baderisat*, *biosean*, *isac*, etab.
- /tʃ/ <h>: *ehera*, *hit* (vs 2. gut. gazt. <ch>)

3. GUTUNA (C ESKUA)

- /b/ soilik: *recibituco* (vs 3. gut. gazt. <v>-z ere bai)
- /g/ <gu> (/i, e): *aleguinean, beguira, guera, guere* (vs 2. gut. eus. <g>)
- /k/ <qu> (/i): *ysecorequin* (vs 1. eta 2. gut. eus. <c>)
- [x] <j>: *dirijiseco, Judioac* (vs 1. eta 2. gut. eus. <g>)
- [ɲ] <ñ>: *coñado, coñata* (vs 1. eta 2. gut. eus. <n>)
- /r/ <rr>: *alcarren, alcarri, correa, orra*, etab. (baina *coreoaren, etoreraren*; vs 1. eta 2. gut. eus. <r> soilik)
- Frikari hortzobikariak <s, z, c>: *beste eta bisi, ysecorequin, partes, su, becela, recibituco, gucien; dituzu, lagunduz, laztan, zure*, etab. (vs 1. eta 2. gut. eus. frikari hortzobikariak <s>-z soilik eta <c>-k /k/ ordezkatzeko du)
- Afrikatu hortzobikariak <s, z>: *dirijiseco eta esperazen* (vs 1. eta 2. gut. eus. afrikatu hortzobikariak <s>-z soilik)

Ematen du gaztelaniaren idazkera-arauak ezagutzen zituztela, oro har: esku batek baino gehiagok idatziak egonagatik (A eta C eskuak), grafema berak ageri dira gaztelaniazko zatietan. Aitzitik, euskarazko zatietan hautu ezberdinak ikus daitezke; lehen bi gutunetako grafemak bat datoz (B eskua), baina hirugarrena bereiz da (C eskua): <g> (2. gut. eus.) vs <gu> (3. gut. eus.); <c> (1. eta 2. gut. eus.) vs <qu> (3. gut. eus.); <g> (1. eta 2. gut. eus.) vs <j> (3. gut. eus.); <n> (1. eta 2. gut. eus.) vs <ñ> (3. gut. eus.); <r> (1. eta 2. gut. eus.) vs <rr> (3. gut. eus.); <s> (1. eta 2. gut. eus.) vs <s, z, c> (3. gut. eus.).

Euskarazko zatiei dagokienez, hirugarren eskutitza (C eskua) gaztelaniaz idazteko arau ortografikoei lotuago ageri da, XVIII. mendearen erdialdera arteko idazleengan eta geroagoko batzuegan ohikoa den moduan. Lehenengo eta bigarren eskutitzak (B eskua), berriz, erdal grafiaren eredutik bereizten dira, cf. *osunarecin, conado, areba, ehera* ‘etxera’, etab. Bururatu zaidan lehen azalpena da idazteko ohitura falta izan daitekeela B eskuak garaiko ereduari ez jarraitzearen arrazoia; pentsa liteke ahal edo zekien bezala idatzi zuela. Alabaina, sistematikoa da lehen eta bigarren eskutitzetako grafia (/k/ <c>-z e eta iren aurretik; [ɲ] <n>-z; /r/ <r>-z; /tʃ/ <h>-z, etab.), eta, beraz, propio eginak izan daitezke hautu horiek. Aintzat hartu behar da XVIII. mendearen erdialdean aldaketa nabari dela grafiaren alorrean, hizkuntzaren beste alor batzuetan bezala: «euskarari nortasun grafikoa eman nahi zaio, grafia ahoskerari egokitu, erdal grafietatik heredatutako anbiguotasuna eta koherentziarik eza gainditu eta –garaiazen azken aldean batik bat– grafia batasuna lortu» (Urgell, 2018, 607. or.). Berez, jende ikasiaren testuetan nabari da joera hori; bestelakoa da gutunetako mundua. Nolanahi ere, baliteke idazlariak hautu grafiko jakin batzuk egin izana, garai hartako euskal idazle kanonikoen hautuekin bat ez etorri arren (ikus Urgell, 2018, § 5.1).

3. ESKUTITZEN EDIZIOA

3.1. Irizpideak

Testuen edizio kritikoa osatzeko erabili ditudan irizpideak zehaztuko ditut atal honetan. Bai euskarazko, bai gaztelaniazko zatietan:

- Laburdurak garatu eta osorik adierazi dira.
- Puntuazio-ikurrak eguneratu dira, ulergarritasunaren mesedetan.
- Letra larrien eta xeheen erabilera gaur egungo arauen arabera egin da. Adibidez, izen propioak letra larriz eta izen komunak letra xehez, edo puntuaren ondotik letra larria.
- Hitzak bereiztean, gaur egungo irizpideei jarraitu zaie.
- Erabilitako ikurrak eta beren esanahia:
 - { }: orrialdeak adierazteko.
 - []: jatorrizko testuan ageri ez diren edo zalantzazkoak diren testu zatiak osatzeko. Adibidez: *Alzu[eta]* (2. gut. gazt.), *nobe[d]ad* (1. gut. gazt.), etab. Idazlearen akastzat jo ditudanak berreraiki ditut; aldiz, bere horretan utzi ditut egungo euskal filologoon ezagutzaren arabera errata den edo ez jakitea zail direnak.
 - [...]: eskuizkribuan ziurra ez den zerbait dagoenean.

Bestalde, gaztelaniazko testu-zatietarako, CHARTA sareak edizio kritikoetarako eskaintzen dituen irizpideak aintzat hartu ditut (2013, § 5). Horrenbestez, azentu-marka erantsi da, gaur egungo irizpideen arabera, hala tokatzen den hitzetan. Horrez gain, jatorrizko testuko grafiari eutsi zaio honako kasu hauetan:

- <v> eta bere horretan gorde dira, aztergai ditugun eskutitzetan kontsonante balioa dutelako beti: *ber* (2. gut.), *bibir* (2. gut.), *favor* (2. gut.), *primabera* (1. gut.) eta (*h*)*avía* (2. gut.), etab.
- Seseoa adieraz lezakeen grafiari eutsi zaio: *asiendo* (1. gut.), *desirle* (1. gut.), *gosas* (2. gut.), *nesesidad* (3. gut.), *notisias* (3. gut.), etab.
- <ss> gorde da bokal artean: *Jossef* (2. gut.), *pessos* (1. gut.)
- <h>-rik ez da gehitu ageri ez den kasuetan (salbu beheragoko oharra): *aga* (1. gut.), *allo* (2. gut.), *asta* (2. gut.), *ermana* (1. gut.), *ermano* (1. gut.), etab.

Grafiako zerbait aldatzekotan, CHARTAko irizpideei jarraituta egin da. Esate baterako:

- <h> gehitu da gaztelaniazko *haber* aditzaren adizki laguntzaileetan: *an* → *han* (1. gut.), *a* → *ha* (2. gut.), *e* → *he* (2. gut.), *as* → *has* (2. gut.), etab. Modu honetan anbiguotasuna saihestu nahi izan da: adibidez, *a* preposizioa vs *ha* laguntzailea. Aldiz, aditz nagusia jatorrizko testuan ageri den bezala adierazi da, gainerako kasuetan ez baita erantsi <h>-rik: *havía* eta *abía(n)* (2. gut.), cf. *acer* (1. gut.).
- <y>-k bokal arrunta ordezkatzeko duenean, <y> → <i> aldaketa egin da: *yja* → *ija* (3. gut.), *yjo* → *ijo* (3. gut.), *ynfierno* → *infierno* (2. gut.), etab. Era berean, <i> → <y> ordezkapena egin da, gaur egungo irizpideen arabera, <y> tokatzen den [bokal + -i] testuinguruetan: *estoi* → *estoy* (1. gut., 2. gut.), *boi* → *boy* (2. gut.), etab.
- <qu> → <cu> aldaketa egin da, *u* bokala ahoskatu behar den kasuetan: *quanto* → *cuanto* (1. gut.), *quando* → *cuando* (2. gut.), etab.
- <nb>, <np> → <mb>, <mp> ordezkapena egin da: *enpeño* → *empeño* (1. gut.), *tiempo* → *tiempo* (2. gut.), *tambien* → *también* (2. gut.), *enbiarles* → *embiarles* (2. gut.), etab.

Euskarazko testu-zatiei dagokienez, bi zutabetan adierazi dira: ezkerrean, jatorrizko testuan ageri den bezala eman da (edizio-irizpideetan zehaztutako puntuazio-ikurrak, hitzen banaketa... moldatuta), eta, eskuinean, gaur egungo grafian idatzita. Modu honetan, gutunen idazlarien idazkera eta grafia islatu, eta, aldi berean, irakurleari ulermena erraztu nahi izan zaio. Azpimarratu nahi nuke gaur egungo grafiaren arabera idazterakoan grafia soilik aldatu dela; hots, ez da euskara batura itzuli, ezaugarri dialektalak mantendu nahi izan direlako. Horri lotuta, ohar bat egin beharra dago: txistukari frikariak ez dira gaur egungo grafian adierazi eta jatorrizkoan ageri diren grafiari eutsi zaio eskuineko zutabearen ere, ahozko hizkeraren ezaugarri bat islatzen dutela dirudielako. Aitzitik, txistukari afrikatuak moldatu egin dira, hizkeraren bereizgarria baino areago, hautu grafiko bat dirudielako (ikus § 4.1.2n txistukariez esandakoa); halere, hitza nola ahoskatuko zen jakitea zail den kasuetan, bere horretan uztea erabaki da, cf. ozen ondoko batzuk: *galsetak*, *konmiansiarik*, *pensatuko*, *Franziska* (1. gut.); *Franzisku*, *sestuginsan* (2. gut.), etab.

3.2. Testuak

3.2.1. Lehenengo eskutitza

{1}⁷

A Don José de Segura

7 Helbidea idatzita dagoen orrian, abiagunea adierazi da: [E]SPAN[A] eta VIZCAIA.

que Dios guarde a vuestra merced muchos años etcétera.

El Navío⁸ de Piloto.

Montebideo

{2r}

Getaria y Agosto 8 de 1796.

Esposo y querido mío: Esta sirve para desirle a vuestra merced cómo estamos todos con salud, sin nobe[d]ad a Dios gracias. El nobedad lo que tengo es, no quieren acer el poder los abogados ni los escribanos en bista de aquel papel o esquila. Dicen que no tienen⁹ tanta autoridad para acer tales cosas.

Aquellos pessos que nos mandamos a mí y a la cuñada María Angela, no biene aquí ninguna cosa. No sabemos el paradero de dichos pesos. Cuanto antes abísame vuestra merced el paradero de dichos pesos. También embíame vuestra merced el poder; echa con toda la formalida[d]¹⁰, ará que los tomen los reales¹¹ que corresponden a vuestra merced del Rey.

Cuando biene vuestra merced a Cádiz, benga vuestra merced sin falta a casa, porque estoy asiendo diligencias para el alibio {2v} de nuestra familia. Biene el hijo de Manuel dendaria para la primabera. Trae (como tiene antes en la China) el oficio de factor de San Sebastián. Le tomo por empeño su madre Andre Ana, para que le toma vuestra merced algún oficio en San Sebastián¹² y me han dado esperanzas. Y me encargó la madre que le aga vuestra merced diligencia de vuestro amo en Cádiz para su ermano Echaberri. La ermana Francisca se ba a casar mañana con José Simón Galdoch.

Memorias por parte de la madre y ermana y de cuñada Cruza. Mil brazos por parte de hijos mías. A su medida, en su deseo, su esposa que estimo de mi corazón.

Francisca de Mendizabal.

Su hijo Nicolas de Segura.

{3r}

8 Aurretik G dirudiena ageri da.

9 Beste zerbait idatzi du (*viene* edo), eta ondoren zuzendu.

10 Formalidad] eskuizkribuan *formalida*. Gaztelaniazko zatietan *-dad* bukaera duten hitz batzuk daudenez, hau ere horrela berreraiki dut. Dena dela, baliteke eskuizkribuan ageri den bezala ahoskatzea, amaierako *-d* gabe.

11 Jarraian, zerbait idatzita eta ezabatuta dago.

12 Azken <n>-a orriaren ertzean dago, eta berriz idatzi du goian.

Nere conado¹³ maitea: asco alegratuko nais cartau resibisean osasunarecin egotea. Guc osasuna degu gustioc. Sure serbiseco deseatuac gaure; su ecusteco gaingoicoac ere bereala eherasea nai deu. Galsetac biralseco conmeniansiaric estegu. Caisa¹⁴ satosenean bereala etorico sera ehara. Su ecusteco deseatuac gaure ta gustion partes eresibituco desu lastan estu bana. Sure areba Francisca gaur esconsen da; sure seme Micolas gonbiratu debe esteietara. Sure emasteac biraldu estebanean, pensatuco desu orain ere nola conplitu deben onecin. Sure biosean beti dagoan Maria Curuza de Mendizabal.

Nere koñado maitea: asko alegratuko nais kartau resibitzean osasunarekin egotea. Guk osasuna degu gustiok. Sure serbitzeko deseatuak gaure; su ekusteko jaingoikoak ere berehala etxeratzea nahi deu. Galsetak biralseko konmeniansiarik estegu. Caisa satosenean berehala etorriko sera etxera. Su ekusteko deseatuak gaure ta gustion partes erresibituko desu lastan estu bana. Sure arreba Franziska gaur eskonsen da; sure seme Mikolas gonbiratu debe esteietara. Sure emasteak biraldu estebanean, pensatuko desu orain ere nola konplitu deben honekin. Sure bihotzean beti dagoan Maria Kuruza de Mendizabal.

3.2.2. Bigarren eskutitza

{1}¹⁵

Don Jossef de Segura

Que Dios guarde a vuestra merced muchos años etcétera.

Vive en la calle de la Amargura esquina de la calle de Ancha; en casa de Don Francisco de Alzu[eta]¹⁶

Cádiz

{2r}

Guetaria y Agosto 21 de 1796.

13 *Conado*: ‘cuñado’. OEHren arabera (ikus *koinatu*), Gipuzkoan <ñ>-dun aldaerak erabili dira: Beterrin *koñau*, *kuñadu*; Tolosaldean *koñadu*, *kuñado*; Goierrin *koñado*, *kuñao*, *goñado*; eta Azpeitia aldean *koñedo*, *koñedu*, *kuñaru*, *kuñau*. Gipuzkoako idazleen artean, Frantzisko Ignazio Lardizabalek *koñato* aldaera darabil, eta Juan Ignazio Iztuetak *kuñadu*, biak zaldibiarrek. Hirugarren euskarazko eskutitzeko <coñado>-k pentsarazten du Getarian ere sudurkari belarra ahoskatuko zela, eta, beraz, hala interpretatu dut euskarazko 1. eta 2. gutunetan ageri den <conado> ere.

14 *Caisa* (< *Cadisa*): ‘Cádiz’.

15 Helbidea idatzita dagoen orrian, abiagunea adierazi da: *VIZCAIA*. Horrez gain, helbidearen testuaren erdian 16 zenbakiaren itxura duena idatzita dago.

16 <Alzu> garbi irakurtzen da, baina ondokoa zalantzarria da.

Esposo y querido mío: Reciví la estimada de vuestra merced ayer el día 20 de este, y beo que gosas con salud. Yo allo buena en compañía de mi fa[milia]¹⁷ a Dios gracias¹⁸.

He pasao un grande enfermedad. Cuando entraban¹⁹ los frances[es] no²⁰ pensaba entonces otra cosa, sino ber la gloria de Dios. Mi enfermeda[d] era de ocho meses, los hijos en 5 meses, la ermana en dos meses, y todos en uno. La madre havía llebado Dios nuestro señor para sí, en este mismo tiempo no²¹ teníamos quién dar una escudilla de caldo, sino el uno al otro dar, y a la cama. No abía bisto semejante miseria²² como se pasa aquí en esta villa. No boy a explicar más sobre este asunto. También se me abían perdido 2 redes en este tiempo, pero aré otros dos esperando tu benida. Echo obligaciones, y si les tomo los reales que me mandas, entonces est[o]y²³ bien y así en [...] este biaje benir a mi conpañía.

{2v}

Según me ha dicho el escribano y un abogado, no pueden acer el poder aquí, y me harás el favor de embiarme el poder²⁴ con toda formalidad para tomar los reales del Rey. El chiquillo agora he puesto en calsones, y los tres están más ermosos que marfil y estos encomendando al patriarca²⁵ San José. Pero asta acer este biaje, asiendo ese a casa, después también serán los viajes, también modos para bibir sin eso.

Abísale al padre por mi parte, y por parte de Cruza que está tomado nuestro²⁶ bendición; y cuando²⁷ le falta el aliento, que irá en un instante al infierno, y más quando tú quieres abisarles. Si oy[e]ra[...] ²⁸ que está en Buenos Aires, no quiero que irás a su precensia; más quiero yo tu pobreza que riquezas de aquel pícaro. No te has de {3r} abisar como abía muerto la madre a este nuestro buen padre.

Le avía embiado a San Sebastián las calzetas para enbiarles por un navío, y, como se avía salido antes, agora tengo conmigo, y estarán asta que bienes a mi compañía aciendo este biaje. Y agur tu amante esposa Francisca de Mendizabal.

El esposo que desea berte. José de Segura²⁹

17 Ez da ondo irakurtzen, paperak duen orbanarengatik.

18 Gracias] eskuizkribuan g^s. Laburdurako <s>-a <g>-ren gainean idatzi du.

19 <r>-ren aurretik zerbait ezabatuta dago.

20 Paperak orbana du <n>-ren gainean.

21 Paperak duen orbanarengatik, ez da ondo irakurtzen <o>.

22 <e>-ren gainera tinta joan delako ez da garden ageri.

23 <es>-en gainean orbana dago eta ez da ondo ikusten.

24 <d> ez da garden ageri, gainera tinta joan delako.

25 Bigarren <r>-a geroago gehitu du, goian eta behean.

26 <e> ez da garbi irakurtzen, tinta joan delako.

27 Cuando] eskuizkribuan <q>-rekin, q^{ndo}. Beste zerbait idatzi du, eta gero gehitu du hori goian.

28 Aditzaren bukaeran zer dagoen ez dago argi; testuko beste agerraldiei erreparatuta, ez dirudi <s> denik, ezta koma denik ere.

29 Azken lerro hau Francisca de Mendizabal emazteak izenpetzen duen lekutik beherago ageri da.

{3v}

Nere conado maitea: asco alegratuko nais cartau resivisean osasunarecin egotea. Gu osasunecin³⁰ gaude. Sure serbiseco obligasi[o] deran besela, bada hit estimatuac dauscat sure³¹ biosean nagoalaco isac. Baderisat gaingoicoac lagunduco disula sere gausetan. Beage³² ori egin da laster ehara. Hit gaude deseatuac su ecusteco. Franciscu pascoac escero sestuginsan icasten dago. Mari Angela arebac gisona desertatu escero artu ditu irurogei escutu ta geiigo³³. Es Migeli esan baina seu cuidaros ibili oren enpenoetan. Adios³⁴ nere conado beti biosean sauscaran Jose de Segura. Curusa de Mendizabal.

Nere koñado maitea: asko alegratuko nais kartau resibitzean osasunarekin egotea. Gu osasunekin gaude. Sure serbitzeko obligasi[o] deran besela, bada txit estimatuak dauskat sure bihotzean nagoalako hitzak. Baderitzat jaingoikoak lagunduko disula sere gausetan. Beaje hori egin da laster etxera. Txit gaude deseatuak su ekusteko. Franzisku paskoak eskero sestuginsan ikasten dago. Mari Angela arrebak gisona desertatu eskero hartu ditu hirurogei eskutu ta gehiago. Es Migeli esan baina seu kuidaros ibili horren enpeñoetan. Adios nere koñado beti bihotzean sauskaran Jose de Segura. Kurusa de Mendizabal.

3.2.3. Hirugarren eskutitza

{1}³⁵

A³⁶ Don Josseph de Segura

Que Dios guarde muchos años etcétera. Por la Coruña. Correo Marítimo.

Montebideo

{2r}

Guetaria y Octubre 12 de 1797.

30 <osa>-ren ondoren zerbait idatzita eta ezabatuta dago.
31 <e> gero gehituta dago, goian.
32 OEHren arabera (ikus *bidaia*), aldaera hau ere erabili dute Gipuzkoako idazle herrikoi modernoek: «Hay además *beaje* en autores populares guipuzcoanos modernos». Zehatzago esateko, Tolosaldeko aldaeratzat hartzen da; Jose Azpiroz berastegiarraren eta Txomin Garmendia berrobotarraren adibide bana ageri dira, XX. mendekoak. Baliteke *ia* > *ea* hiperzuzenketaren ondorio izatea. Aintzat hartu behar da, ordea, *ea* > *ia* bokal aldaketarik ez dagoela aztergai dugun testuan (§ 4.1.1).
33 Zail da ziur jakitea <ii> errata den edo berriaz idatzi ote zuen ahoskera tinkatua adierazteko baliabide gisa, testuetan ez baitago horrelako adibide gehiago.
34 <o>-n orbana dago eta ez da garden ageri.
35 Hirugarren eskutitzean ez da beste bietan bezain garbi ikusten, baina honetan ere abiagunea adierazi da: VIZ[C]AIA.
36 <A>-ri lotuta irudi baten moduko zerbait du. Gehiagotan ere ageri da eskutitz berean, hain zuzen, <M> eta <A> larriak idazten dituenen: A (1), *Marítimo* (1), *Montebideo* (1, 2r), *Me* (2v), *Agur* (2v), *Amada* (2v), *Maria* (2v), *Mendizabal* (2v), *Mesiasen* (2v), *Aristondo* (2v).

Querido esposo: Me halegraré que al recibo de esta te halles con³⁷ salud. Yo estoy buena con toda nuestra familia. Aún estoy siempre anelada por saber tus notisias, pues de este que salí de Cádiz azta aora no he recibido otra carta sino una³⁸ sola llegada de Montebideo. Pues consideradas bien cómo puedo estar, pues por motibo de estas g[u]erras³⁹, se carese de día en día todas las cosas. Pienses bien qué familia tengo en estas pasados años. No tengo probecho hasta que binieses con los sueldos del Rey, pues mi memoria anda siempre pensando las cosas presisas para manuatención de mi familia; aora mismo cor[r]e⁴⁰ unas notisias bastantes malos. Me parese tardará esta guerra, eso me quita el sueño.

Te advierto no tenías neseseidad de prevenir. Si ubieras sabido cuánto nesesa para pasar una familia con tres ijos, yo no pensaba, ni otros muchos tan poco, que no me librarías unos reales o algún sueldo cada mes en Cádiz. {2v} Bien sabes que no se malograr si me embíes, con tanto⁴¹ pensarás, si eres bascongao, puedes comprender porque ba el tiempo muy largo. Nicolás anda en la escuela, Miguelcho también y la ija Xabiera, las tres.

Me quedo rogando a Dios que libres todos los peligros de este mundo. Y Agur tu más amada esposa, quien te estima y desea berte cuanto antes. María Francisca de Mendizabal

P.D.

Nere koñado maytea: emen bisi gue-
ra familia bioc alcarren compañean,
alcarri guere aleguinean lagunduaz,
zure notisien esperazen, correoa pasa
ta cor[r]eoaren⁴² beguira, Judioac Me-
siasen etor[r]eraren⁴³ becela. Orra nere
semearen letra, su satozen arte lecu on
batera dirijiseco. Recibituko dituzu yse-
corequin beste gucien partes memoriac⁴⁴
eta nere partes laztan bat. Sure koñata
Curuza, Francisco de Aristondo.

P.D.

Nere koñado maitea: hemen bisi gera
familia biok alkarren kompañean, alka-
rri gere aleguinean lagunduaz, zure noti-
sien esperatzen, korreoa pasa ta korreoa-
ren begira, Judioac Mesiasen etorreraren
bezela. Horra nere semearen letra, su
satozen arte leku on batera dirijitzeko.
Rezibituko dituzu isekorekin beste guzien
partes memoriak eta nere partes laztan
bat. Sure koñata Kuruza, Franzisko de
Aristondo.

37 Zerbait idatzita eta ezabatuta dago, eta goian *con* gehituta.

38 <a>-k gero gehitua dirudi.

39 G[u]erras] Eskuizkribuan *gerras*. Hala berreraiki dut C eskuak <gu> grafema darabilelako (§ 2.4).

40 Cor[r]e] Eskuizkribuan *core*. Hala berreraiki dut C eskuak <rr> grafema darabilelako (§ 2.4).

41 *Con tanto*: ‘de modo que...’.

42 Cor[r]eoaren] Eskuizkribuan *coreoaren*, ikus 40. oin-oharra.

43 Etor[r]eraren] eskuizkribuan *etorerarten*, ikus 40. oin-oharra.

44 *Memoriac*] eskuizkribuan *mem^{ac}*. Eskutitzetan laburdura bidez idatzi izanak adieraz lezake ohiko formula bat zela euskaraz ere. OEHN (ikus *memoriak*) Pomier hiztegiko adibidea ageri da *memoriak eman* esapi-dean: «‘*Memoriak eman gitzazu nere partez*, dadle [por ‘dadme’(?)] encomiendas de mi parte’ VP 60v.».

4. HIZKUNTZA-AZTERKETA

Euskarazko zatietan ageri diren hizkuntza-bereizgarriez jardungo dut jarraian. Ereku geografiko honetatik hurbil, Oikiako Baltasar Etxaberen *Ave Maria* (1607) eta Bretainiako kanta (ca. 1590) ezagutzen genituen (Mitxelena, 1964; Sarasola, 1983), azken hau inoiz Gipuzkoako kostaldekotzat jo dena⁴⁵. Haatik, Urola kostaldean ziurtasunez ezagutzen ditugun euskal testu zahar bakarrak dira, oraingoz, Getariako eskutitzak. Urola barnealdeko eta Gipuzkoako beste eskualdeetako datuekin alderatuta, esan daiteke XVIII. mendearen bigarren erdian eta ereku geografiko horretan espero dugunarekin nahiko bat datorrela gutunetan islatzen den hizkera.

4.1. Fonologia

4.1.1. *ea > ia* eta *oa > ua* gisako bokal aldaketarik ez dago: *biosean* ‘bihotzean’ (1. eta 2. gut.), *emasteac* ‘emazteak’ (1. gut.), *maitea* (1., 2., 3. gut.), *semearen* (3. gut.) eta *correoa* (3. gut.), *dagoan* ‘dagoen’ (1. gut.), *gaingoicoac* ‘Jaungoikoak’ (1. eta 2. gut.), etab.

ea > ia aldaketari dagokionez, honakoa erakusten dute Gipuzkoako testu zaharrek: Urolan, ez da ageri berrikuntza lekukotasun zaharrenetan (SumBrev, ErrezilGut, AzpGut), baina bai XVIII. mendearen bukaeran; berrikuntzak nahiko errotuta dirudi, gainera, Azkoitia-Azpeitia inguruan garai horretan: Azkoitiko 1772ko *Grand Tour* antzerkian *andria* ‘andrea’ (2r), *biar* ‘behar’ (5r), *echian* ‘etxean’ (3v), *semiac* ‘semeak’ (4r) adibideak daude, eta Azpeitiako 1786ko udal-aginduan *atiac* ‘ateak’ (49. ler.), *bitartian* ‘bitartean’ (13. ler., 54. ler.), *bostian* ‘bostean’ (1. ler.), *igandiac* ‘igandeak’ (10. ler.), etab. Ildo beretik, Deba ibarreko itsasaldean, *beriala* ‘berehala’, *bidian* ‘bidean’ eta *trabajacia* ‘trabajatzea’ adibideak ageri dira 1775eko Mutrikuko Txakartegiren eskutitzean. Beterrin, berrikuntza ez da ohikoa XVIII. mendeko testuetan (DonGut), baina bada adibideren bat: Lasarteko 1716ko bertsoetan, adibidez, *esquadrian* ‘eskuadraren’ (6. berts.) eta *sucaldian* ‘sukaldean’ (8. berts.) daude, nahiz eta forma zaharrei eusten zaien gehienetan (*abereac* 5. berts., *andreac* 4. berts., *jabea* 16. berts.).

Egoera berdintsua da *oa > ua* aldaketari dagokionez. Urolako Azkoitia-Azpeitia inguruan, pentsa liteke indartsu zegoela berrikuntza XVIII. mendearen bigarren erdian (Zuloaga, 2019, 292. or.); izan ere, 1772ko Azkoitiko *Grand Tourean numgua* ‘nongoa’ (2v), *onduan* ‘ondoan’ (2v), *satisfaziua* ‘satisfazioa’ (3r) gisakoak daude, eta Azpeitiko 1786ko udal-aginduan *divinuac* ‘gazt. divino’ (31. ler.), *onetacua* ‘honetako’ (5. ler.), *publicuac* ‘publikoak’ (31. ler.), etab. Aitzitik, XVIII. mendeko Beterriko nahiz Tolosaldeko testuetan (LasBerts, Irazusta, DonGut) ez dut *oa > ua* aldaketaren adibiderik bildu; berrikuntza hau berankorra da eskualde horietako tradizio idatzian (Zuloaga, 2019, 293. or.).

45 Baita eskutitzen datatik hurbilago legokeen 1759ko Oikiako dotrina ere (Lakarra, 1987), baina dialektalki ez du erabateko fidagarritasunik: Frantzisko Antonio Agirre da dotrinaren egilea, Oikiako erretore izandakoa, baina jaiotzez Eskoriatzako Marin auzokoa (Seguro, 2013, 232. or.). Hizkuntza jasoa darabil, gainera.

Aintzat hartu behar da halako fenomenoak lokalak izan ohi direla, eta herri batetik bestera alda daitezkeela. Hala, badirudi XVIII. menderako bokal aldaketan berrikuntza gertatuta zegoela hizkera batzuetan, baina ez beste batzuetan. Getariako ahozko hizkeran gaur egun *ea > ia* eta *oa > ua* egiten bada ere (Agirrebeña et al., 2017, 31. or.), ematen du berrikuntza garatzeke zegoela XVIII. mendearen amaieran⁴⁶.

4.1.2. Txistukari frikarietan apikariaren aldeko neutralizazioaren arrastoak daude. Alabaina, txistukarien adierazpenari dagokionez, bitan banatu behar dira eskutitzetako datuak: alde batetik, lehenengo eta bigarren gutunetakoak (1. gut. *desu* ‘duzu’, *emasteac* ‘emazteak’, *gustioc* ‘guztioak’, *sera* ‘zara’, mailegua den *eresibituco* ‘errezibituko’, etab.; 2. gut. *es* ‘ez’, *escero* ‘ezkero’, *gisona* ‘gizona’, *nais* ‘naiz’, etab.), eta bestetik, hirugarren gutunekoak (*bisi* ‘bizi’, *ysecorequin* ‘izekorekin’, *partes* ‘partez’, *satozen* ‘zatozen’, *notisien* ‘notiziak’ mailegua, etab.)⁴⁷.

Lehen bi gutunei erreparatuta, ezin dezakegu jakin berrikuntza gertatuta zegoen ala ez, <s>-z adierazi baitira txistukari guztiak, frikariak nahiz afrikatuak. Ulibarrik (2015) dioenez, XVII.-XVIII. mendeetako zenbait euskal egilerentzat <s> grafia soilik zegoen eskuragarri txistukariak adierazteko: «honek euskal txistukari oro (/tʃ/ izan ezik, esan bezala), zirenak zirela, letra horren bidez adieraztera eraman zituen», eta horregatik, «azalpen fonetikoaren ordez grafikoa» proposatu behar dela uste du (Ulibarri, 2015, 137. or.). Ildo beretik, honakoa dio Zuloagak (2019) <s> soilik duen *Ibarguen-Cachopín* kronikako Andramendiko idatziez ari dela: «<s> (ia) edozein txistukari adieraztea idazlearen hautu grafikoa besterik da, eta ez dago arrazoi tinkorik testuan bereizketa neutralizaturik zegoela pentsatzeko» (Zuloaga, 2019, 434. or.). Izan ere, berrikuntza oso aurreratuta zegoela pentsatu beharko genuke bestela, baina uste horrekin ez dator guztiz bat Getariako hirugarren gutuna: <s>-z gain, <z>-z eta <c>-z ere adierazi dira frikariak, cf. *becela*, *gucien*, *lagunduz*, *zure*, etab.

Horregatik, hirugarren gutunari erreparatuko diogu batik bat berrikuntza honetaz jarduteko: txistukariak grafikoki bereizten dira, eta <s>-z idatzitako zenbait adibidek erakuts dezakete apikariaren aldeko neutralizazioa gertatuta zegoela frikarietan, cf. *becela*, *gucien*, *lagunduz*, *zure* vs *beste*, *pasa*, *semearen* baina *bisi*, *ysecorequin*, *notisien*, *partes*, *su*, etab. Euskal Herriko mendebaleko zenbait hizkeratan gertatu da berrikuntza hau, eta, eremu geografiko bakoitzean izan duen indarra eta hedadura neurtzeko, lau ingurune bereizi ohi dira (Zuloaga, 2019, 343. or.): (a) herskari aurrean, (b) hitz amaieran, (c) hitz hasieran, eta (d) bokal artean. Lehenengo bi kasuetan gertatzen da neutralizazioa errazen (Mitxelena, 1961/2011, § 14.2), eta beste bietan ondoren. Hala, hirugarren eskutitza ikusita, ematen du berrikuntza aurreratu samar zegoela Getarian, (c) eta (d) inguruneetan ere adibideak baitaude: *bisi* ‘bizi’, *ysecorequin* ‘izekorekin’, *notisien* ‘notizien’, *satozen* ‘zatozen’, *sure* ‘zure’, etab. Gaur egungo Getariako ahozko hizkeran ere apikariaren aldeko neutralizazioa nabari da frikarietan (Agirrebeña et al., 2017, 36. or.).

46 Ikus 32. oin-oharrea *beage* ‘gazt. viaje’-z esandakoa.

47 Ahoskera seseantea mailegatu zela erakuts dezakete agian *eresibituco* ‘errezibituko’ (1. gut.) nahiz *notisien* ‘notiziak’ (3. gut.) adibideek.

Badira frikarietan lepokariaren aldeko hautua egin duten hizkerak ere, Urola (barnealde)koak kasu: horren erakusgarri dira, esate baterako, Azkoitiko 1772ko *Grand Tourean* ageri diren *ezan* ‘esan’ (3r), *azco* ‘asko’ (3r), *curiozuagua* ‘kuriosoagoa’ (5v) (& *baisic* 2v, *segatic* 4r, *suc* 2v), etab. Nola Azkoitiko 1772ko testuak, hala aztergai ditugun Getariakoek (3. gut.), erakusten dute XVIII. menderako frikariaren neutralizazioa gertatuta zegoela Gipuzkoako zenbait herritan, eta lehenago ere bai, cf. Azkoitiko SumBrev-ko *askenengo* (3), *emasteak* (12) eta *zalbazioa* (1), *adizkidea* (24), etab.⁴⁸

Afrikatueta ere gertatu da neutralizazioa Euskal Herriko mendebaleko zenbait hizkeratan, kasu honetan, lepokariaren alde. Berrikuntza hori XVII.-XVIII. mendeetan zehar zabaldu bide zen gehienbat, eta 1700az geroztikako zenbait testutan ageri da (Zuloaga, 2019, 440. or.). Hori dela eta, neutralizazioak eragindako hiperzuzenketak ageri dira idazkietan. Alabaina, aurrez aipatutakoa errepikatzen da Getariako lehen eta bigarren gutunetan; <s>-z adierazi dira frikariak ez ezik, afrikatu guztiak: *resibisean* (1. gut.) & *resivisean* (2. gut.) ‘errezibitzean’, *serbiseco* ‘zerbitzeko’ (1. eta 2. gut.), *eherasea* ‘etxeratzea’ (1. gut.), *biosean* ‘bihotzean’ (1. eta 2. gut.) *isac* ‘hitzak’ (2. gut.), *baderisat* ‘baderitzat’ (2. gut.), etab. Frikariez esandakoaren ildo beretik, «erabilera sistematikoa bada, zaila edo ezinezkoa da bereiztea», eta beraz, «ez dago esaterik *bakoitsean* bezalako aldaera batean bereizketa galdu ondoko hiperzuzenketak dagoen ala idazleak lepokari afrikatua hala ematea erabaki zuen» (Zuloaga, 2019, 439. or.). Getariako hirugarren gutunean, <s>-z idatzitako *dirijiseco* ‘bideratzeko, joateko’ adibidearekin batera, <z>-dun *esperazen* ‘itxaroten’ dago; frikari lepokariaz idatzitako bakarra da, ordea, eta ausartegia litzateke adibide bakar horren bidez <s>-dun guztiak hiperzuzenketak direla ondorioztatzea. Beraz, grafiari lotutako hautua dirudi kasu honetan.

Azken ideia horri lotuta, aintzat hartu behar da Larramendi baino lehen –XVIII. mendearen erdialdera arte– ez zirela txistukari frikari eta afrikatuak grafikoki bereizten Hego Euskal Herrian (Lakarra, 1985, 243.-244. or.; Urgell, 2018, 608. or.), nahiz eta saiakera batzuk egon, egon ziren: *Refranes y Sentencias*, Garibai, Landucci, etab. (Mounole & Lakarra, 2018, 413. or.). Gogoan izan behar da, halaber, bereizketa-sistema ez zela bat-batean hedatu Larramendiren ondotik: «nahiz sistema berria maila bateko idazleek lehen unetik onartu, XIX. mendean ere oraindik bada sistema zaharra erabiltzen duenik» (Ulibarri, 2015, 136. or.). Aztergai ditugun gutunak Larramendi ondokoak dira garaia dagokionez, baina ez dirudi andoaindarrak bultzatutako eredu jasoa islatzen dutenik.

4.1.3. *-d- > -r-* aldaketa gertatu da zenbait hitzetan: *biraldu* ‘bidali’ (< *bidaldu*; 1. gut.), *deran* ‘dudan’ (< *dedan*; 2. gut.), *gaure* ‘gaude’ (1. gut.), *sauscaran* ‘zauzkadan’ (2. gut.), etab. Berrikuntza hau Euskal Herriko bazter ugaritan ageri da azken mendeetan, besteak beste, Araban, Bizkaian, Nafarroan eta Gipuzkoan; Lapurdin ere adizki batzuetan behintzat bai. Banaketa nabarreko berrikuntza da.

48 Gipuzkoako testuek erakusten dutena xeheago jakin nahi izanez gero, ikus Zuloaga (2019, § 4.7.5).

4.2. Izen-morfologia

4.2.1. *Zeu* izenordain indartua dago: *seu* ‘zeu’ (2. gut.). Euskal Herriko mendebal zabalean erabili dira *neu(r)-* (*neu*, *neuk*, *neuri...*) & *zeu(r)-* (*zeu*, *zeuk*, *zeuri...*) gisako izenordain indartuak, vs ekialdeko *nihaur* & *zuhaur* erako aldaera zaharrak eta erdialdeko *ne(u)roni* & *ze(u)roni* erako aldaera berriagoak (Mounole & Gómez, 2018, 501. or.). Honako forma hauek ageri dira, esate baterako, Deba ibarrean, Urolan eta Goierri lehendabiziko testuetatik hasita: *neuq* (Txakartegi), *neuri* (OArin 52), *ceuri* (OArin 172), *gueuc* (OArin 1), etab. Gaur egun ere halakoak darabiltzate Getariako ahozko hizkeran: «badirudi *neul/heul/geul/zeu* taldekoak direla Getarian erabiltzen diren bakarrak [...] ez dugu aurkitu Zarautzen eta, batez ere, Orion azaltzen diren *neroni/herorri/geroni/zerorri* taldeko adibiderik» (Agirrebeña et al., 2017, 53. or.).

4.2.2. *Nere* gisako izenordain jatorriz indartuak daude genitiboan: *nere* ‘neure’ (1., 2. eta 3. gut.), *guere* ‘geure’ (3. gut.), *sere* ‘zeure’ (2. gut.). Euskal Herriko erdialdean erabili dira aldaera hauek, hots, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia nahiz Lapurdi arteko eremuan, eta Arabako testu zaharretan ere ageri dira. Linschmann-Aresti legeari jarraituz, testuinguru indartuan soilik erabiltzen ziren hasieran, baina, gerora, testuinguru neutroa ere hedatu ziren, batik bat *nere* (Martínez-Areta, 2013, 314. or.). Getariako eskutitzetan, hain zuzen, testuinguru neutroan ageri da *nere*: esate baterako, *nere partes [rezibituko dezu] lastan bat* (3. gut.) edo *nere conado maitea* (1. eta 2. gut.) / *nere coñado maytea* (3. gut.) bezalako bokatiboetan. Aitzitik, testuinguru indartuan soilik ageri dira *gere* eta *sere*: *gaingoicoac lagunduco disula sere gausetan* (2. gut.; vs beste *sure* guztiak); [*guk*] *alcarri guere aleguinean lagunduz* (3. gut.).

XVI.-XVII. mendeetako Gipuzkoako testuetan jada baditugu *nere* & *gere(n)* aldaeren agerraldiak. XVIII. mendean hartzen dute nagusitasuna, eta, mende horretan, eremu geografiko zabalean ageri dira Gipuzkoan, batik bat, *nere*: Urolan (AzpGut; GTour), Goierri (OArin; GoiPlat), Tolosaldean (Irazusta) eta Beterrin (LasBerts; DonGut) ez ezik, mendebaleragoko Deba ibarrean (Berg-Antz) eta Gipuzkoako ipar-ekialdean (IrunUdal; HondPlat) ere bai. *Zere* aldaera, aldiz, ez da ageri XVIII. mendearen erdialdera arte: besteak beste, Goierriko platikan (XVIII) eta Manuel Larramendi (1740; 1747), Agustin Kardaberatz (1744), Juan Antonio Ubillos (1785), Agirre Asteasukoa (1803), Frantzisko Ignazio Lardizabal (1855) eta Beizamako Otaegi (XVIII-XIX) idazleen testuetan bildu dut. Aipatutako horiek idazle jantziak dira, baina pentsa liteke tokian tokiko hizkeran erabiltzen zena testuratu baino ez zutela egin *zere* erabiltzean; Getariako eskutitzetako agerraldiarekin, herri-hizkerako testu bateko *zereren* lekukotasuna ere badugu orain. Gaur egun *nere* erabiltzen da Getarian ahozkoan, baina badirudi *gure* eta *zure* izenordain neutroek ordezkatu dituztela *gere* eta *zere* indartuak (Agirrebeña et al., 2017, 54. or.), hizkera gehiagotan gertatu den bezala (Mounole & Gómez, 2018, 523. or.).

4.2.3. *Bi* zenbatzailea izenaren ondotik ageri da: *familia bioc* (3. gut.). Garai batean euskaraz orokorra izan zen hurrenkera hau. Gipuzkoako testuetan ikus daitekeenez, XVIII. mendean oraindik baziren hurrenkera zaharrari eusten zioten idazle batzuk:

hala nola, Otxoa Arin ordiziarra (*mandamentu bitan 5, persona bi 30, razoe bigatican* 130) eta Irazusta alkizarra (*beatz biauquin 10, persona bi 63*). Azpeitiako altzagata-
rren 1738ko gutunetan ere adibideren bat dago (*carta bi 1/2*); alabaina, XIX. mendeko
Azpeitiako dotrinan izenaren aurretik dago *bi* zenbatzailea gehienetan (*bi borondate*,
bi centzu, *bi izate* baina *biatz birequin*; Pagola et al., 1993). Beraz, Urolan XVIII.
mendean arkaismoari eusten zioten arren, badirudi XIX. menderako hurrenkera berria
orokortzen hasia zela. Aitzitik, Deba ibarrean XIX. mendean ere badira adibideak,
cf. AntzDot-ko *atz birequin* (11r), *naturaleza bien* (16r), *modu bitan* (31r), etab. Gaur
egun, Euskal Herriko mendebaleko hizkera batzuetan eusten diote ezaugarri zaharrari
(Zuazo, 2014, 175. or.); Bizkaian, adibidez, orokorra da, nahiz eta gazteengan *bi* aurre-
ratzeko joera ere badagoen. Gipuzkoan, Deba ibarrean iraun du, irautekotan: «ez da
gutziz galdu, baina [izenaren] ezkerrean jartzen da askotan, baita adin handiko hiztu-
nen jardunean ere» (Zuazo, 2006, 94.-95. or.).

4.3. Aditz-morfologia

4.3.1. *Ikusi* aditzak *e-* aurrizkia du: *ecusteco* ‘ikusteko’ (1. eta 2. gut.). Ezaugarri
zaharra da, geroago aldaera berriak nagusitu dira. XVIII. mendearen erdialdeko
Gipuzkoako testuetan badira *e-* aurrizkia duten aditz nagusien adibide gehiago: Ira-
zusta alkizarraren 1739ko dotrinan, *ecusiz* (12, 21, 35) gain, gisa bereko *eutci* (2) ‘utzi’
dago (& *utci* 24), Donostiako 1761eko gutunetan *ecusi* (5/17, 6/12, 7/22) eta *ecusico*
(2/5, 5/18) daude, eta Hondarribiako 1778ko platikan *ecusi*ac (11). Hizkera batean
baino gehiagotan erabili da *ekusi* aldaera, baina, *Euskal Klasikoen Corpusean* (EKC)
begiratuta, Gipuzkoako idazleen adibideak dira gehienak. Donostiako gutunetan *icuzi*
(4/4) eta Hondarribiako platikan *icusi* aldaera berriagoak ere badaude, beraz, badi-
rudi XVIII. mendearen erdialdean jada aldaketa bidean zela. Eneko Zuloagak esan
didanez, gaur egun oraindik *ekosi* aldaera erabiltzen da Bizkaiko Orozkon, adibidez.
Haatik, batik bat Zuberoan eutsi zaio ezaugarri zaharrari zenbait aditzetan (Camino,
2022, 109. or.), eta Lapurdi mendebalean *egorri* aditza da salbuespena, han ere aldaera
berriak gailendu baitira oro har (Duhalde, 2023, 173. or.)⁴⁹.

4.3.2. *Izanen* laguntzaileek *-e-* dute: *sera* ‘zara’ (1. gut), *guera* ‘gara’ (3. gut). Lehen
testuetatik daude halakoak Gipuzkoan (Ariztimuño, 2020, 61. or.), eta XVIII. men-
dean Arabako ekialdean ere ageri dira (Camino, 2019, § 4.10). Testu faltagatik,
zaila da iraganean zehazki nondik nora erabili ziren jakitea; haatik, ditugun datuak
aintzat hartuta, ematen du ez direla Gipuzkoako eskualde guztietan erabili: *serade*
(LasBerts 3. berts), *zera* (AzpGut 2. gut) eta *gueral*a (ZegDot 38v), *gueraden* (Ira-
zusta 37) vs *bazara* (Amilleta 2), *zara* (AntzDot 2v) eta *gara* (Amilleta 3), *garan* (Antz-
Dot 26v), *bagara* (HondPlat 12), etab. Badirudi, beraz, Gipuzkoa erdialdean erabili
zirela, baina ez ertzetako eskualdeetan. Gaur egun ere *zea*, *gea* aldaerak dira nagusi
Getarian (Agirrebeña et al., 2017, 71. or.) eta eremu geografiko zabalagoa hartu
dute, gainera: *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* (EHHA) arabera, Gipuzkoan,

49 Litekeena da *egorri* analogikoa edo berria izatea, eta, beraz, *e-* sail zaharrekoa ez izatea, beste egitura kon-
plexuagokoa baizik (Lakarra et al., 2019, 274. or.).

Deba-Elgoibartik eskuin entzuten dira, eta Hondarribia-Oiartzun alderaino iristen (ikus EHHA, 6, 1276.-1277. mapak). Donostiatik ekialdera *zera* & *zara* eta *gera* & *gara* aldaeren arteko lehia egonagatik (Camino, 2000, 73. or.), Nafarroa Garaiko Bortzirietara, Malerreka eta Bertizaranera iritsi dira *zera* & *gera*, Oronozaraino *gera*, Baztan ibaian barrena (Irizar, 1992-I)⁵⁰.

4.3.3. *Edunen* laguntzaileek *-eu/-eb-* dute 3. pertsonan, eta *-e-* 1. eta 2. pertsonetan: *deu* ‘du’ (1. gut.), *debe* ‘dute’ (1. gut.) / *deben* ‘duten’ (1. gut.), *estebanean* ‘ez duenean’ (1. gut.) eta *deran* ‘dudan’ (2. gut.; < *dedan*), *desu* ‘duzu’ (1. gut.), *degu* ‘dugu’ (1. gut.) & *estegu* ‘ez dugu’ (1. gut.).

Gipuzkoa erdialdeko eskualdeetan erabili dira gisa batekoak eta bestekoak, batera, eta ondoko eskualdeetako adizkiekin erka daitezke: alde batetik, 3. pertsonako *deban/zeban* Gipuzkoa erdialdean, vs Bizkaiko eta Debarroko *daben/leban* eta Gipuzkoa ipar-ekialdeko *duan/zuan*⁵¹. Testu zaharretan ikus daiteke gaur egun duten baino hedadura geografiko zabalagoa izan zutela iraganen *deu/-deb-* erakoek: Tolosako 1557ko ezkontza-fedean *deuen* ‘duen’ dago, Otxoa Arin ordiziarrek *deb/deu* ‘du’, *debel/debea* ‘dute’, *ceban* ‘zuen’, *ceben/ceban/cebean* ‘zuten’ adibideak ditu 1713an, eta Juan Irazusta alkizarrak *deban*, *debela*, *ceban*, *ceben*, *baceben* (& *duan*, *zuan*, *due...*) 1739an. Arabako Lazarragak ere baditu diptongodun adizkiak, eta, Gipuzkoan ez bezala, 1. eta 2. pertsonan ere bai: *deut*, *deudan*, *deuc* (Mounole, 2020, 274. or.). Aitzitik, Beterritik ekialdera *dul/zuén* gisakoak baizik ez dira lekukotzen testuetan, cf. LasBerts *du* (1), *esuan* (15, < *es suan*) ‘ez zuen’, *due* ‘dute’ (17); DonGut *du* (5/20), *duela* (2/21-28), *vadute* (1/21); HondPlat *du* (5), *zuen* (7), *duben* ‘duten’ (3, 6), *duela* (2), etab. Dena dela, zaila da ziur esatea diptongodun adizkiak nondik nora bitartean erabili izan diren, behar baino testu gutxiago baititugu Gipuzkoako ipar-ekialdean. Badirudi, gainera, erdi-ekialdeko formak mendebalerantz hedatuz joan direla: gaur egun *du* eta *du(b)e* ‘dute’ gisako forma soilduak erabiltzen dira Getariako ahozko hizkeran (Agirrebeña et al., 2017, 73. or.); Urolan, barnealdeko herrietan eusten diete *deu* ‘du’ / *zeban* ‘zuen’ diptongodunei, baina hor ere *deban* & *duan* biak entzuten dira aspaldi samarretik, cf. GTour-eko *nai duan* (5v), *jaquingo duala* (3r), *ateraco suban* (8v; < *zuan*), etab⁵².

Bestalde, *edunen* 1. eta 2. pertsonetan *-e-* duten adizkiak ere erabili dira Gipuzkoa erdialdean. Testu zaharrak arakatuta, Deba ibarreko iparraldean, Urolan, Goierrin, Tolosaldean eta Beterrin ageri dira: *det* ‘dut’ (LasBerts 13. berts.; Txakartegi) / *dedan* (AzpGut 1/3; Txakartegi) eta *deran* (DonGut 2/33) ‘dudan’, *dec* ‘duk’ (EldBerts 2/20),

50 Bera: *gara*, *zara* & *zera* (404. or.); Etxalar: *gara* & *gera*, *zara* (478. or.); Lesaka: *gara* & *gaa* & (Alkaiaga auzoan) *gera*, *zara* & *zaa* & (Alkaiaga auzoan) *zera* (411. eta 418. or.); Sunbilla: *gara* & *gera*, *zara* & *zera* (439. or.); Ituren: *gera* & *gara*, *zera* & *zara* (495. or.); Urrotz: *gera* & *gara*, *zara* (509. or.); Legasa: *gera* & *gara*, *zera* & *zara* (423. or.); Oronoz: *zara*, *gara* & *gera* (573. or.) (Irizar, 1992-I).

51 *-eu/-eb-* diptongoa duten adizki horiek berrikuntza dira lehenagoko **dadu-* eta (mendebaleko) *dau-* formekin alderatuta (**dadu-* > *dau-* > *deu-*), nahiz eta, gerora adizki berriak sortu direnez (*deu-* > *du*), gaur egun arkaismotzat joko genituzkeen.

52 Dena dela, idazkera-kontzientziaren eragina tartean egon liteke testu zaharretako *duan/zuan* adizkien erabilera.

dezu ‘duzu’ (OArin 13), *degu* ‘dugu’ (Irazusta 44) & *degula* ‘dugula’ (ZegDot 13v), etab. Aitzitik, ez daude gainerako Deba ibarreko eta Gipuzkoako ipar-ekialdeko testuetan, cf. *dot*, *dozu*, *dogu* (Amilleta; AntzDot) eta *estut*, *dugu* (HondPlat)⁵³. Gipuzkoan ez ezik, Araban ere bazeuden *-e*-dun aldaerak: horren erakusgarri dira, besteak beste, Lazarraga arabar idazleak dituen *det*, *dedan*, *deçun* (Mounole, 2020, 273. or.). Lazarragaren adizkiek (*deut*, *deudan*, *deuc* & *det*, *dedan*, *deçun*) erakusten dute, hain zuzen, *-e*-dun adizkiak *-eu-* diptongodunetatik datozela: *deut* > *det*, *deudan* > *dedan*, etab. Gaur egun ere *-e*-dun adizkiak erabiltzen dira Getarian *edunen* orainaldiko 1. eta 2. pertsonan (Agirrebeña et al., 2017, 73. or.), vs Deba ibar gehienera *dot* eta Gipuzkoa ipar-ekialdean *dut*. Donostiatik ekialderako ondoko herrietan hasten dira *dut*, *dugu*, *duzu* aldaerak (Camino, 2000, 74. or.). Alabaina, Nafarroako mugako herri gutxi batzuetan ere badaude *det* gisakoak (Zuazo, 2014, 80. or.).

4.4. Sintaxia

4.4.1. Osagarri zuzena genitiboan adierazi da: *sure serbiseco* ‘zu zerbitzeko’ (1. eta 2. gut.), *notisien esperazen* ‘notiziak esperatzen, notizien zain’ (3. gut.). Ezaugarri zaharra da, eta garai batean orokorra izan zen euskara guztian. Adibide gehiago daude Hegoaldeko testu zaharrenetan, esate baterako, Elduaingo 1619ko bertsoetan: *oen glosacen* ‘hauek glosatzen’ (37), *oen eguiten* ‘hauek egiten’ (40). XVIII. mendearen erdialdean ere badago arkaismo honen adibideren bat, Irazusta alkizarraren 1739ko testua lekuko: *it[ç] gaiztoen esatetic* ‘hitz gaiztoak esatetik’ (3). Geroagoko lekukotasunetan, ordea, absolutiboan adierazten da osagarri zuzena, baita gaur egungo hizkera gehienera ere, Getariakoan barne. Ekialderagoko mintzoetan eusten diote ezaugarri zaharrari (besteak beste, Duhalde, 2023, 107. or.).

4.4.2. *X-kin Y* egitura ageri da: *Recibituco dituzu ysecorequin beste gucien partes memoriac* ‘izeko eta beste guztien partez’ (3. gut.). Emendiozko egitura zahar honen zenbait adibide ditugu Euskal Herri zabaleko testuetan, batik bat XVIII. mendearen erdialdea baino lehenagokoetan (Lakarra, 2008, 90.-92. or.). Halako adibide bat dago, esate baterako, *Salmo Misererean*: *Biz gloria aytearequin semearençat* ‘Gloria izan dadila aitarentzat eta semearentzat’ (94. ler.). Gerora, *eta* juntagailuak ordezkatu du egitura hau.

4.5. Lexikoa

4.5.1. Euskal Herriko mendebalean (batik bat) erabili den *laztan* ageri da: *laztan* (3. gut.) & *lastan* (1. gut.). Esanahi bat baino gehiago izan ditzake (‘maitea’, ‘musua’, ‘besarkada’); gutun hauetan, ‘besarkada jaso/eman’ adieraren sinonimotzat har liteke: *eresibituco desu lastan estu bana* (1. gut.); *Recibituco dituzu ysecorequin beste gucien partes memoriac eta nere partes laztan bat* (3. gut.). Orotariko Euskal Hiztegia

⁵³ Haatik, Urolako eta Goierriko testuetan ere badago *-o*-dun adibideren bat: GTour-ean *a(d)itu* aditzarekin *aitu dot / aitu izan dot* gisakoak daude, eta OArin-ek *eguin dodan* (170) dauka; Gipuzkoa erdialdeko zenbait testutan *-u-* duten adizkiak ere ageri dira tarteka, baina zaila da interpretazio zuzena egitea, idazkera-kontzientziaren eraginez idatziak izan daitezkeelako.

(OEH) esaten denez (ikus *laztan*), *laztan eman* esapidea Gipuzkoako mendebaleko hizkeretan ibili da, baina Agustin Kardaberatz, Agirre Asteasukoa eta Frantzisko Ignazio Lardizabal idazleek ere badarabilte. Lekukotasun horiez gain, Gipuzkoako testu zahar gehiagotan ere ageri da *laztan* ‘musu, besarkada’ adierarekin: besteak beste, Otxoa Arin ordiziarraren 1713ko dotrinan, Donostiako 1761eko gutunetan, 1802ko Errezilgo sermoian eta Otaegi Beizamakoaren lanean. EHHAren arabera, ordea, badirudi Deba ibarrean duela muga gaur egun; hortik ekialdera, herri gutxi batzuetan baino ez da bildu Gipuzkoan (Errezil, Legazpi), eta ez forma nagusi gisa (ikus EHHA, 9, 2308. mapa)⁵⁴. Beraz, badirudi mendebalerantz murriztuz joan dela hitz honen erabilera-eremua.

4.5.2. Euskal Herriko mendebalean erabili den *izeko* ageri da: *ysecorequin* ‘izeko-ekin’ (3. gut.). OEHN esaten denez, lehen testuetatik daude *izeko* eta honen aldaerak Bizkaian; 1596koa den Bilbo inguruko *Refranes y Sentencias* testuan, esate baterako, badago. Gaur egungo ahozko datuei erreparatuta, Deba ibarreko nahiz Urolako zenbait herritan erabiltzen da *izeko* Gipuzkoan: Arroan, Azkoitian, Azpeitian, Getarian eta, hegoaldera, Legazpin dakar EHHAk (ikus EHHA, 10, 2501. mapa). Zarautzen, berriz, *izeko* & *izeba* biak erabiltzen dira, baina *izeko* erabiliagoa da (Agirrebeña et al., 2007, 156. or.). Aitzitik, Orion *izeba* jaso da (EHHA, 10, 2501. mapa); Orioko testu zaharrik ez dugunez, ezin dezakegu jakin iraganean ere hala zatekeen, eta, beraz, hitz honen itsasaldeko mugak aspalditik dirauen hor, ala erabilera-eremua mendebalerantz murriztu den (§ 4.5.1).

4.5.3. Gipuzkoan erabili den *pasa* (3. gut.) partizipioa ageri da, *pasaturen* ordeiz: OEHren arabera, batez ere Gipuzkoan erabili da aldaera hau, baina ekialderagoko autore batzuek ere badarabilte geroago⁵⁵.

5. AZKEN HITZA

Orain arte ezagutzen ez genituen euskal testu batzuk aurkeztea izan da saio honen helburua: 1796.-1797. urteen bitartean idatzitako Getariako eskutitzak. Hiru gutun dira, *Nuestra Señora de los Remedios* barkuko kapitain Jose Thomas Francisco Segura Eznaia (Getaria, 1761-03-06) idatziak; une hartan Buenos Aires / Montevideo-Cádiz bidea egiten ari zen. Hiru eskutitzek egitura bera dute: lehendabizi, gaztelaniaz idazten dio bere emazte Maria Francisca Manuela Mendizabal Larrañagak (Getaria, 1753-12-24), eta ondoren, euskaraz bere koinata Maria Cruz Mendizabal Larrañagak (d.e.). Idazkerari erreparatuta, esku bat baino gehiago bereiz litezke eskutitzetan, izen berak sinatuak egonagatik. Hori dela eta, pentsa liteke idazlari

54 Orion eta Oiartzunen ere *laztan* dakar EHHAk, bigarren edo hirugarren aukera gisa. Haatik, ekialderagoko herriak izanik, zalantza egin liteke ea benetan erabili den edo elkarriketatzaileak emandako aukeren artean hautatu den.

55 «[...] En cuanto a las formas, usan part. *pasa*, alternando gralmte. con *pasatu* (algo menos frecuente), los autores guipuzcoanos, así como algunos septentrionales modernos (Etchamendi o Xalbador)» (ikus OEHN *pasatu*). Biak ala biak bertsolariak eta oso modernoak.

batzuk eduki zituztela (cf. Elozegi, 2019; Padilla-Moyano & Videgain, 2015), seguraski beraiek idazten ez zekitelako. Dena dela, ez dirudi horrek eskutitzetan islatzen den hizkerari eragin ziezaiokeenik.

Euskaraz idatzitako zatien hizkuntza-azterketa eginda, esan daiteke gutunetan islatzen diren ezaugarriak bat datozela garai bertuko Gipuzkoa erdialdeko testuetako datuekin. Hala, ezaugarri zahar orokor batzuei eustez gain (§ 4.1.1, § 4.2.3, § 4.3.1, § 4.4.1; § 4.4.2), eremu geografiko bat baino gehiagotako berrikuntzak bereiz litezke: Euskal Herriko mendebalekoak⁵⁶ (= Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako mendebala; § 4.1.2, § 4.2.1, § 4.5.1, § 4.5.2), Euskal Herriko erdigune zabalekoak (= Gipuzkoa, Nafarroa Garaia, Lapurdi eta batzuetan Araba; § 4.2.2), Euskal Herriko erdigune hertsikoak (= Gipuzkoako erdialdea eta Araba; § 4.3.2, § 4.3.3) eta Gipuzkoakoak (§ 4.5.3). Eremu nabarreko berrikuntza bat ere ageri da, Euskal Herriko toki batean baino gehiagotan dagoena (§ 4.1.3).

Orain arte ez geneukan ziurtasunez Urola kostaldekoa den testu zaharrik, eta horixe da gutun hauen ekarpenik interesgarriena: inguru horretako iraganeko euskara islatzen duten lekukotasun batzuk izanda, uste genuen hori baieztatu dezakegu orain. Lekukotasun laburrak izanagatik, Gipuzkoako corpusa aberasten dute, nola eremu geografikoaren aldetik, hala testu-generoaren aldetik; izan ere, Gipuzkoan nagusi diren erlijio-testuetatik kanpoko lekukotasunak dira, eta, itxuraz, herri-hizkera islatzen dute.

Azken urteetan, badirudi orain arte gordeta zeuden zenbait testu argitara irteten ari direla, eta baliteke, bide beretik, lekukotasun gehiago agertzea. Adibidez, XIX. mendeko Getariako eskutitz batzuen berri eman zuen bere garaian Nicolas Alzola Gere-diagak (1966, 267-269. or.): Maria Manuela Ezenarrok bere ahizpa Maria Domingari idatziak bide dira. Nik dakidala, ordea, aipamen hori soilik daukagu, ez baitzen argitu eskutitz horiek non dauden. Horrek erakusten du balitekeela lekukotasun gehiago egotea, guk oraindik ezagutu ez arren. Bien bitartean, dauzkagun datuak ikertzen jarraitu beharko dugu.

6. ERREFERENTZIAK

- Agirre, J. (1803). *Confesioco eta comunioco sacramentuen gañean eracusaldia*. Francisco Lama.
- Agirrebeña, A., Maiz, B., Muniozguren, F., Sarasua, A. & Zabaleta, M. (2007). *Zarautz hizketan*. Zarauzko Udala.
- Agirrebeña, A., Sarasua, A. & Zabaleta, M. (2017). *Getaiko euskera*. Getariako Udala.
- Altuna, F. & Miranda, P. (1995). Irungo Udaleko zazpi agiri euskaraz (1721). *ASJU*, 29(2), 527-544. <https://doi.org/10.1387/asju.8491>
- Altuna, P. (2002). Errexilko euskara duela 200 urte. *Euskera*, 47(1), 73-82.

⁵⁶ Eremu geografiko honetako berrikuntzei lotuta, 2. gutuneko *arebac* 'arrebak' adibideak berresten du Getarian ez zegoela Euskal Herriko mendebaleko hizkeretan gertatutako *-a + -a > -ea* berrikuntza, ezpada *-a + -a > -aa > -a* orokorra.

- Altuna, P. & Lakarra, J.A. (1990). *Manuel Larramendi. Euskal testuak*. Andoaingo Udala.
- Alzola, N. (1966). Miscelánea. *BAP*, 22(1), 257-282.
- Anonimoa. (d.g.). *Salmo Miserere* [Ale mikrofilmatua].
- Arejita, A. & Alberdi, M. (1985). Amilletaren dotrinea. *Litterae Vasconicae*, 3, 9-68.
- Ariztimuño, B. (2020). Gipuzkoako euskara zaharre(ta)tik erdialdeko euskarara. In I. Camino, X. Artiagoitia, I. Epelde & K. Ulibarri (arg.), *Eibartik Zube-roara euskalkietan barrena*. Koldo Zuazori gorazarre (57.-66. or.). UPV/EHU.
- Bilbao, G. & Lakarra, J.A. (2014). Elduaingo bertso iraingarriak. In R. Gómez, B. Ariztimuño, G. Bilbao, I. Camino, J.A. Lakarra, J. Manterola, C. Mounole, U. Reguero & E. Zuloaga (arg.), *Euskal testu zaharren bilduma berria*. [Eskuizkribu argitaragabea]. UPV/EHU.
- Camino, I. (2000). Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeko. In K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak* (51.-81. or.). Arabako Foru Aldundia.
- Camino, I. (2019). An overview of Basque dialects. In L. Grenoble, P. Lane & U. Røyneland (arg.), *Linguistic minorities in Europe online*. De Gruyter Mouton.
- Camino, I. (2022). *Aztergaiak Ipar Euskal Herriko euskararen berrikuntzez*. UPV/EHU.
- Charta sarea. (2013). *Criterios de edición de documentos hispánicos (Orígenes-siglo XIX)* (2013ko apirileko bertsioa). <https://www.redcharta.es/criterios-de-edicion/>
- Donostiako Elizbarrutia. (2024). *Donostiako Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa*. <https://artxiboa.mendezmende.org/eu/busque-partidas-sacramentales.html>
- Duhalde, M. (2023). *Lapurdiko itsas begiko euskararen azterketa dialektologikoa*. [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/62663>
- EHHA = Euskaltzaindia (2014)
- EKC = Euskara Institutua (2013)
- Elosegi, X. (2019). *Le Dauphin: 1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak*, «Othoi çato etchera» (Iker, 36). Euskaltzaindia.
- Errezilgo sermoia (1802) = Altuna, P. (2002)
- Ettxebarria, N. (2007). 1708ko eskuizkribu argitaratubakoa bizkaieraz: edizinoa eta hizkerearen azterketea. *Euskalingua*, 11, 67-94.
- Euskaltzaindia. (2014). *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* [EHHA]: 6., 9. eta 10. liburukiak. Euskaltzaindia.
- Euskara Institutua. (2013). *Euskal Klasikoen Corpora (EKC)*. UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/ehg/kc/>
- Irizar, P. (1992). *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional I*. Euskaltzaindia.
- Kardaberatz, A. (1744). *Kristabaren bizitza* (1. argitalpena) [Bittor Hildagoren transkripzioa: Klasikoen Gordailua]. <https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/K/KardaberazKristabaI.htm>
- Lakarra, J.A. (1985). Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia. *ASJU*, 19(1), 235-282. <https://doi.org/10.1387/asju.7685>
- Lakarra, J.A. (1987). Oikiako dotrina (1759). *ASJU*, 21(2), 515-564. <https://doi.org/10.1387/asju.7857>

- Lakarra, J.A. (2008). Vida con/y libertad: sobre una coordinación arcaica y la autenticidad de «Urthubiako Alhaba». *ASJU*, 42(1), 83-100. <https://doi.org/10.1387/asju.2301>
- Lakarra, J.A., Manterola, J. & Seguro, I. (2019). *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa (EHHE-200)*. Euskaltzaindia.
- Lamikiz, X. (2010). *Trade and trust in the eighteenth-century Atlantic world: Spanish merchants and their overseas networks*. Boydell Press; Royal Historical Society.
- Lamikiz, X. (2015). Le Dauphin itsasontziaren testuinguru historikoa: Louisbourgeko euskaldunak, ekonomia atlantiarra eta gerra (1713-1758). *Lapurdum* [ale berezia], 2, 17-43. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2546>
- Larramendi, M. (1740; 1747) = Altuna & Lakarra (1990)
- Lardizabal, F. I. (1855) = Urgell (1995, 1996)
- Leturiaga, O. (2022). *Juan Irazusta. Pertsona, garaia eta idazlana*. Eusko Jaurlaritza.
- Madariaga, J., Azpiazu, J.A. & Elortza, J. (2009). XVIII. eta XIX. mendeetako Azpeitiko euskal testu batzuk. *FLV*, 110, 5-45. <https://doi.org/10.35462/flv110.1>
- Martínez-Areta, M. (2013). Demonstratives and personal pronouns. In M. Martínez-Areta (arg.), *Basque and Proto-Basque. Language internal and typological approaches to linguistic reconstruction* (283.-321. or.). Peter Lang.
- Mitxelena, K. (1964). *Textos arcaicos vascos*. Minotauro.
- Mitxelena, K. (2011). *Fonética histórica vasca*. In J.A. Lakarra & I. Ruiz Arzalluz (arg.), *Obras completas* (vol. VI). UPV/EHU. (Jatorrizko obra 1961ean argitaratuta)
- Mitxelena, K. & Sarasola, I. (1987-2005). *Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=1694&lang=eu
- Mounole, C. (2020). Lazarraga Eskuizkribuaren gramatika. In G. Bilbao, R. Gómez, J.A. Lakarra, J. Manterola, C. Mounole & B. Urgell (arg.), *Lazarraga Eskuizkribuaren edizioa eta azterketa. I. Sarrera, gramatika, hiztegia eta adizkitegia*. UPV/EHU.
- Mounole, C. & Gómez, R. (2018). Euskara zahar eta klasikoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (469.-541. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Mounole, C. & Lakarra, J.A. (2018). Euskara arkaikoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J.A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia* (345.-468. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Murugarren, L. (1984). Una plática del Goyerri. *ASJU*, 18(2), 185-197. <https://doi.org/10.1387/asju.7659>
- OEH = Mitxelena, K. & Sarasola, I. (1987-2005)
- Ondarra, F. (1984). Zegamako Doctrina Christiana (1741). *ASJU*, 18(2), 3-62. <https://doi.org/10.1387/asju.7653>
- Otaegi, B. (1993). *Felipe Agustin Otaegui Beizamako erretorearen eskuizkribuak (1767-1840)*. [Doktore-tesia, UPV/EHU]. Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Beatriz_Otaegi_TESIA.pdf
- Otxoa Arin, J. (1713). *Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itc eguiten dan moduan*. Pedro de Ugarte.

- Padilla-Moyano, M. & Videgain, X. (2015). Le Dauphin: euskarazko gutunak (1757). *Lapurdum* [ale berezia], 2, 95-160. <https://doi.org/10.4000/lapur-dum.2561>
- Pagola, R.M., Beola, A., Iribar, I. & Iribar, J.J. (1993). *Bonaparte Ondareko eskuizkribuak: gipuzkera* (5. alea). Deustuko Unibertsitatea.
- Santazilia, E. (2017). Artxibora itzultzearen garrantziaz. Maria Angela de Txakartegiren 1775eko gutuntxoak. *Lapurdum*, 17, 271-281. <https://doi.org/10.4000/lapur-dum.3584>
- Sarasola, I. (1983). Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos. *ASJU*, 17, 69-212. <https://doi.org/10.1387/asju.7614>
- Satrustegi, J.M. (1979). Plática vasca del año 1778 en un proceso de Fuenterrabía. *FLV*, 32, 287-302. <https://doi.org/10.35462/flv32.7>
- Satrustegi, J.M. (1983a). Epistolario vasco del siglo XVIII. *ASJU*, 17, 3-24. <https://doi.org/10.1387/asju.7608>
- Satrustegi, J.M. (1983b). Lasarteko bertso paper zahar bat (1716). In *Piarres Laffiteri omenaldia* (571.-581. or.). Euskaltzaindia.
- Segurola, K. (2013). Oikiako dotrinak: F. Antonio Agirre Gabiria. *Lapurdum*, 17, 223-153. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2466>
- Ubillos, J.A. (1785). *Christau doctriñ berri-ecarlea christauari dagozcan Eguia sinis-beharren-berria dacarrena*. Francisco Lama.
- Ugarte, J.L. & Aldekoa, I. (2007). Antzerkiaren transkripzioa eta hainbat ohar. *Egan*, 60(1-2), 73-91.
- Ulibarri, K. (2015). *Dotrinazko sermoitegia: galduriko hizkerak eta dialektologia historikoa*. [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/15971>
- Urgell, B. (1995). *Testamentu Zarreko kondaira* (I). Francisco Ignacio Lardizabal. Euskal Editoreen Elkarte.
- Urgell, B. (1996). *Testamentu Berriko kondaira* (II). Francisco Ignacio Lardizabal. Euskal Editoreen Elkarte.
- Urgell, B. (2018). Lehen euskara modernoa. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J.A. Laka-rra (arg.), *Euskararen historia* (543.-657. or.). Eusko Jaurlaritza.
- Uribe-Etxebarria, O. (2008). «Euskerazko doktrinia Anzuelako berba moduan» (1825). *ASJU*, 42(2), 139-209. <https://doi.org/10.1387/asju.5706>
- Urkizu, P. (2009). Un texto olvidado del siglo XVII: Sumario brebea... (Azkoitia, 1614). *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, 14, 207-217.
- Zuazo, K. (2006). *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu Euskara Elkarte.
- Zuazo, K. (2014). Euskalkiak. Elkar.
- Zuloaga, E. (2019). *Mendebaleko euskararen azterketa dialektologiko-diakronikorantz*. [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/49846>

7. ERANSKINAK

7.1. Eskutitzetako laburdurak

2. taula. Edizioan osorik idatzitakoa eta jatorrizkoan ageri dena

Edizioan	Jatorrizkoan	Edizioan	Jatorrizkoan
casa	<i>c^a</i>	Manuel	<i>Man^l</i>
compañía	<i>comp^a</i>	para	<i>p^a</i>
dicho	<i>dho</i>	por	<i>p^r</i>
dichos pesos	<i>dhos p^{ss} [p^{sc}]</i>	pessos	<i>p^{ss} [p^{sc}]</i>
Don	<i>Dⁿ</i>	que	<i>q^e</i>
ermana	<i>erm^a / erm^o</i>	cuando	<i>q^{ndo} / q^{do}</i>
ermano	<i>erm^o</i>	que dios guarde a vuestra merced muchos años etcétera.	<i>que dios m^s a^s &^a / D^s G^e m^s a^s</i>
Francisca	<i>Fran^{Ca}</i>	reales	<i>r^s</i>
Francisco	<i>Fran^{Co}</i>	San	<i>Sⁿ</i>
gracias	<i>g^{as}</i>	señor	<i>s^r</i>
Maria Angela	<i>M^a Ang^a</i>	vuestra merced	<i>vm</i>
memoriac	<i>mem^{ac}</i>	vuestro	<i>vs</i>

7.2. Eskuizkribuaren irudiak



9. irudia. Lehenengo eskutitzaren helbidea.

Getaria y Agosto 8 de 1796

Espero y querido mio esta linea para decirte
 aum como estamos todos con salud si no beas a
 decir q. el novedad lo que tengo es, noquieran acer
 el Poder los Abogados ni los Escribanos sin vista
 de aquel papel o Esquela dicen que no tienen
 tanta autoridad para acer tales cosas;

Aquellas personas que nos mandamos a mi, y ala
 Cuñada el P. Ang.º no bien aqui ninguna cosa
 no sabemos el paradero de thos p.º y quanto antes
 abixamenn el paradero de thos p.º tambien embia
 me un el Poder echa con toda la formalida para q.
 los tomen los r.º y que corresponden a mi el Rey

Quanto bien un a Cadix ben un sin falta
 a casa porque estoi asiendo diligencias p.º el alitio

10. irudia. Lehenengo eskutitzeko gaztelaniazko zatiaren hasiera.

de nuestra familia, Bize el hijo de Man?
 Dendaria p.^a la primaverza (como tiene
 antes chila china) el oficio de factor de Sanseba-
 rian le tome p.^a pensio su madre Andre tra-
 p.^a que le toma un alquifio en Sansebarian
 y me ayudo esperando; y me encargo la
 madre que le agavm diligencia en un año
 en Cadiz p.^a Chile. Echaberaí, la Cam.
 Fran. se va acabar Manana con Jose
 Simon Galdoch.

Memorias p.^a parte de la madre
 y Caon. y en la misma Caon. mil
 Daxos p.^a parte de Hijo mis
 adu. medidas en deseo en España
 que extirpo a mi corazón.

Fran. en Memoirabal
 Su hijo Nicolas de Segura

11. irudia. Lehenengo eskutitzeko gaztelaniazko zatiaren jarraipena.

Jex cona do naitea usco alega tu
 conais carrau xesubisean osasuna ne
 cin egotea gure osasuna dega gus
 tioc siu xesubiseo de seaturac gau
 nesuecuste co gungoi oac exebene
 ala cherasea naideugai se oac bina
 seco con menian suan este gual
 sa satose nean benela oto uico se a
 chera suecuste co de seaturac gume
 ta gustion gar se se subitaco
 desulas tan estubana suxeane
 bafransisca gaur es consendusu
 de seme mico las gombia tu de be
 este de tan suxe e mas toac bina
 t du estobana n pensatu co de su
 oain exenola con bota de ben onecia
 suxe bisea mbe tu da gaur Maria canizada
 emendizabal

12. irudia. Lehenengo eskutitzeko euskarazko zatia.



13. irudia. Bigarren eskutitzaren helbidea.

Getaria y Agosto 21. de 1796.
 Expono y quejido mio Recien la estamada a un
 ayer el dia 20. de este, y de que gozos con salud
 Yo allo buena encompaña con mi familia la adior.
 E pasao un grande enfermedad, quando entra
 ban los franceses yo pensaba entonces cosas
 sino de la gloria de dios, mi enfermedad era de
 ocho meses, los hijos en 5 meses, la Esmana
 en dos meses, y todos en uno la Madre, recien
 de bado Dios nuestro p. a. y en este mismo tiempo
 no teniamos quien dar una escudilla de caldo
 sino el uno al otro dar, y alacama no abra
 bido semejante miseria como se pasa aqui
 en esta villa, no voy a explicar mas de breve este
 asunto. Tambien viene abian peridos 2. Nros
 chiste tiempo, pero are estar os esperando tu
 benida echo obligaciones, y si esto me los males
 que me mandas entonces si bien y aincora
 este viaje venir a mi compaña.

14. irudia. Bigarren eskutitzeko gaztelaniazko zatiaren hasiera.

Segun me adto el Escrivano y un abogado
 no pueden acer el porea aqui, y me hasas
 el Labox en endiarne el porea con toda
 formalidad p^a tomar lo a. C. el Rey
 el chiquillo agora puesto en Calsones, y por
 tus estan reasamada G. Morafil, y estan
 encomendando al patrono San To^{re}, pero asta
 acer este braf, asiendo ese a cata ocipues,
 Tambien vanan lo braf, tambien modas p^a
 bibia sin eso.

a bivate al paze p^a mi paze y p^a
 paze en Guira que esta tomado mueras
 benecion, y que^{no} falta el aliento G. ira
 en un instante al Truficano, y mas G. m^a
 quieros abstantes, si oyas que esta en
 Buenas ayas no quieros quieras a un paze
 contra mas quieros y^o tu pobreza que
 riqueras en aquel picao no te asde

15. irudia. Bigarren eskutitzeko gaztelaniazko zatiaren jarraipena.

abirax como abia muestro la moda a este
 muestro buen Padre.
 le aui embiado al Sr. Sebastian las Calzetas
 pa embiarles p. un Navio y como se aui
 salido antes agora tengo conmigo y
 estaran avta que bienis a mi comp. a ciendo
 este dia fe. y agra de amante
 Espasa Tran. canlendarizabalff
 El. C. Espasa q. p. Geria berte
 Jose an Segura

16. irudia. Bigarren eskutitzeko gaztelaniazko zatiaren jarraipena.

Tere conado maitea a scoalegia
 tu conaisca tauresi usean osam
 tu na xecinego te agnosau ne conga
 desu re sexbise co obligasideran bese
 to badahitesuma tu acdauscatsua
 usean nagpala coisacba denosat
 gavin go coacta gundua d'usubase
 re gause tanbea go onegindatas
 tex eho nahogande desea tuacsu
 ecuste co xransis cu pascoacesce
 roses tu ginsamicas bendage ma
 re angelia arebac gersona deserta
 tues cen araudi tu inu ad geres.
 cutu ta gey ia gpes migeliesamba
 inaseu cu ddaros iboludren enpe
 mo etan Adios nere conado betu
 biosean sauscazan Jose deseguna
 cu ausa bomenid zabal

17. irudia. Bigarren eskutitzeko euskarazko zatia.



18. irudia. Hirugarren eskutitzaren helbidea.

III

Guadalupe y Octub.^o de 1797

Querido Esposo: me ha alegrado que al Recibo de esta te ha-
 lles con ~~que~~ salud y yo estoy buena con toda nuestra fami-
 lia a un estoy siempre anelada por saber tus noti-
 cias, pues de este que sali de Cadix asta aora no he
 recibido otra Carta sino una sola llegada de Monte-
 video, pues considerando bien como puedo estar pu-
 es por motivo de estas Genas se caese de dia en
 dia todas las cosas pienses bien que familia tengo
 en estas parados años. no tengo provecho hasta
 que vinieses con los sueldos del Rey pues mi me-
 moria anda siempre pensando las cosas precisas
 para manutencion de mi familia, aora mismo
 con unas noticias bastantes malos me parece
 tardara esta guerra, eso me quita el sueño.

Te advierto no tenias necesidad de pre-
 venir si vieras sabido quanto necesita para pa-
 sar una familia con tres y los yo no pensaba
 ni otros muchos tan poco que no me librarias
 unos reales o algun sueldo cada mes en Cadix.

19. irudia. Hirugarren eskutitzeko gaztelaniazko zatia.

bien sabes gueno se malograr sine embies, con tanto
pensadas si eres bascongado puedes comprendea por
que ba el tiempo muy largo. Nicolas anda en la Escue
la Miguelcho tambien y la ysa Dabiera las tres.

Me quedo rogando a Dios que li
bres todos los peligras de este mundo y Agua trumas

Amada Esposa quien te estima y de
sea berte quanto antes Maria.
Franc. de Mendizabal.

D. D.
Nere Conado May tea: emen bisi quexa familia bioc
alcazen Companean alcaari quere aleguinean lagun
duaz. Txuxe notisien esperazen Corneoa para ta coreo
azen beguixa. Tudioac Mesiazen etoxenaren becelaz,
orra nere Semeazen letia su sator en ante leoa on
batera dirafiseco Xecibitruco dituzru. Y secorequin
beste gueren partes mem.^{al} Eta nere partes larstan
bati sure Conada Cuauza, Francisco de Aristondo.

20. irudia. Hirugarren eskutitzeko gaztelaniazko zatiaren jarraipena eta euskarazko zatia.

